

# Biztanleria landunaren azterketa

## Euskal Autonomia Erkidegoan



**LAN BIZITZEN LAGIN JARRAITUA**  
**Gizarte Segurantzza**

**2015**



**BIZTANLERIA  
LANDUNAREN  
AZTERKETA  
EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOAN**

**LAN BIZITZEN LAGIN  
JARRAITUA**

**2015**

<b>Aurkezpena .....</b>	<b>4</b>
<b>Laburpena .....</b>	<b>5</b>
<b>Ezaugarri sozial eta demografikoak</b>	
Sexua eta adina .....	9
<b>Maila akademikoa .....</b>	<b>10</b>
Bizilekua.....	11
Jatorria.....	13
<b>Afiliazio datuak</b>	
Erregimen Orokorra .....	17
Erregimen orokor bereziak .....	18
Langile Autonomoen Erregimena .....	19
Kotizazio-taldea.....	20
Kontratu mugagabeak eta aldi baterakoak	22
Kontratu motak .....	24
Jarduera ekonomikoa.....	26
Funtzionarioak.....	29
Alta-aldia.....	30
Afiliazio-baja.....	31
Nortasun juridikoa .....	32
Erlazioa beste entitate batzuekin.....	34
<b>Eranskinak .....</b>	<b>37</b>

## LAN-BIZITZEN LAGIN JARRAITUA

Jarduerari lotuta biztanleriari egindako inkestak oinarri hartuta egindako estatistikek ez dute aukerarik ematen biztanleriaren azterketa egiteko, agregazio-maila handian ez bada. Azterketa zehatzagoak egin nahi badira, datu administratiboak hartu behar dira kontuan. Langabezia dagoen biztanleriari dagokionez, zehaztasun-maila horretako azterketa egiteko, enplegu-zerbitzu publikoek erregistratutako datuak erabiltzen dira, enplegu-eskatzaileenak. Okupazioari buruzko azterketak egiteko, berriz, Gizarte Segurantzaren sistemak erregistratutako datuak erabiltzen dira, laneko alta duten afiliatuei buruzkoak. Eta informazio-maila horretara iristea ez denez erraza, Gizarte Segurantzak ikertzaileen eskura jartzen du Lan Bizitzaren Lagin Jarraitua (LBLJ), hau da, anonimo egindako banakoen datuen aterakin bat. Lagina egite aldera, Gizarte Segurantzaren datu-baseetako informazioa erabiltzen da, eta udal-errolda jarraituko zenbait datu eransten dira (EIN). Datu horiek guztiak ia aldaketarik gabe aurkezten dira, erregistro informatikoetan jasota bezala, eta erabat berezita, jatorrizko datu-baseetan biltegitatu diren moduan. Lagin oso zabala denez (unibertsoaren % 4 barne hartzen du), bereizketa-maila handia lortzeko aukera ematen du.

Datuak ausaz aukeratutako pertsoneri dagozkie; zehatz esanda, amaitu berri den urte naturalean edo erreferentzia-urtean Gizarte Segurantzako afiliatu edo pentsiodun izan direnen artean ausaz aukeratuei.

Urte jakin bateko LBLJn barne hartzen diren pertsonen bi baldintza bete behar dituzte:

1. Pertsona fisikoen identifikazio-dokumentua edukitzea (PFI), hautatzeko moduko zenbakien multzokoa (zenbaki guztien % 4 barne hartzen du). Aukerako zenbakien multzoa ez da aldatzen urtetik urtera.
2. Erreferentzia-biztanleriaren parte izatea azterketa-urtean. Erreferentzia-biztanleria, oro har, hauek osatzen dute: batetik, alta emanda dauden afiliatuek, izan lanean, hitzarmen berezian edo langabeziagatik edota jarduera uzteagatik prestazio edo diru-laguntzaren baten jasotzaile, eta, bestetik, Gizarte Segurantzaren pentsioren bat jasotzen dutenek (ordaindutakoaren arabera). Aitzitik, ez dira kontuan hartzen honako hauek: soilik osasun-laguntza jasotzeagatik Gizarte Segurantzaren erregistratutako pertsonak, kotizazio gabeko pentsioak edo laguntza-pentsioak jasotzen dituztenak, Gizarte Segurantzaren ez den beste aurreikuspen-sistemaren baten parte direnak –hala nola Klase Pasiboetako funtzionarioak–, langabeziagatik prestazio edo laguntzarik jasotzen ez duten enplegu-eskatzaileak eta Gizarteratzeko Errenta Aktiboa jasotzen dutenak.

LBLJ pertsonen lagin bat izateko sortua da, pertsonok baitira, eta ez beste batzuk, ausaz eta aukeratuak izateko probabilitate berberaz aukeratzen diren elementu edo unitate estatistikoak. LBLJren urtean urteko edizioa, esan gabe doa, erreferentzia-urteko erreferentzia-biztanleriaren adierazgarri da soilik.

Laginak zenbait mailatako informazioa biltzen du, afiliatutako pertsonen ezaugarriei buruzko datuak, afiliazio-ezaugarriei buruzkoak, kotizazio-oinarriei buruzkoak, pentsioei buruzkoak eta bizikideei buruzkoak.

Txosten honek laneko alta duten pertsonen eta afiliatuen informazioaren mailak aztertuko ditu, eta beste azterketa baterako utziko ditu kotizazio-oinarrien azterketa, pentsioena eta bizikideena.

Bada Lan Bizitzaren Lagin Jarraituaren beste bertsio interesgarri bat, datu fiskalak barne hartzen dituena. Alabaina, Euskal Autonomia Erkidegoan ez da eraginkorra, Gizarte Segurantzak soilik Estatuko Zerga Agentziarekin gurutzatzen dituelako datuak oraingoz, ez Foru Aldundietakoekin.

## Gizarte Segurantzako afiliatuen egiturak ageriko egiten du landun biztanleria zahartuta dagoela eta txikia dela ordezkapen-potentziala

**L**a milioi bat langile egon dira laneko alta emanda 2015. urteko aldiraren batean, 994.925, zehatz esanda. Landun gizonezko kopurua eta emakumezko kopurua parekatzen doazen arren, oraindik ere ia 10 puntukoa da gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aldea. Landun gizonezkoen ehunekoaren eta emakumezkoen ehunekoaren arteko aldea, gainera, handitu egiten da 40 urtetik aurrerako biztanlerian. EAEko lan-merkatua zahartuta dago, biztanleria-piramidearen egitura dela-eta. Biztanleriaren erdia da 43 urtetik gorakoa, eta laurdena, 52 urtetik gorakoa. Eta horrek tentsio larriak eragingo ditu datozen urteetan, bai lanaren arlokoak eta bai zergen arlokoak ere.

**E**uskal Autonomia Erkidegoak enplegu-arro bakar bat balitz bezala funtzionatzen du, eta desplazamendu asko egiten dira lurralde batetik bestera lan-arrazoiak direla-eta. Bizkaia da lan-arrazoiengatik desplazamendu gehien jatorria, eta Araba, proportzioan, langile gehien hartzen duena. Handia da Estatuko beste zenbait tokitarako fluxua ere, eta bereziki intentsitate handia du lurralde mugakideetarakoak.

**L**au afiliatutik hiru Gizarte Segurantzaren erregimen orokor ez-berezikoak dira. Erregimen hori enplegu egituratuari lotuago dago beste batzuk baino; ohikoa da enpresa handietan, eta profil kualifikatu gehiago barne hartzen du.

**H**arritzekoa da Gizarte Segurantzaren afiliatuen aldi baterako kontratuen tasa, askoz handiagoa baita beste iturri batzuek deskribatutakoa baino, hala nola biztanleria aktiboaren inkestak erakusten duena baino. Afiliazio-datuen arabera, 2015ean soldatapean lan egin zuten bost pertsonatik bik iraupen jakineko kontratua zuten. Kontratuen erdia baino ez da mugagabea eta lanaldi osokoa. Gizonezko gehiagok dute lanaldi osoko kontratu mugagabea; emakumezkoek, gazteek, atzerritarrek eta Araban lan egiten dutenek, berriz, aldi baterako kontratuen tasa handiagoa jasaten dute. Kotizazio-talde ohikoenak lehen, bigarren eta hirugarren mailako ofizialei dagozkienak dira, industria-sektoreari lotutakoak, eta oso maskulinizatuta daude.

**G**izarte Segurantzako Erregimen Orokorreko langileen guztizkoaren % 17,3k lanaldi partzialeko kontratua du, eta mota horretako kontratuen % 92,5 iraupen mugatukoa da. Gipuzkoa da lanaldi partzialen ehuneko handiena duen lurraldea, eta 2,2 puntu gaineratik dago Arabarekiko, lanaldi mota horretako soldatapeko gutxien duen lurraldearekiko. Lanaldi partzialeko emakumezko afiliatuen ehunekoa oso handia da, % 22,8koa, hain zuzen. Ehuneko hori 10 puntu txikiagoa da gizonezkoetan, % 12,3koa, zehatz esanda. Lanaldi partzialeko langileen ehuneko handiena Gipuzkoan lan egiten duten emakumezkoek dago; txikiena, berriz, Araban lan egiten duten gizonezkoek.

**A**filiatu kopuru handieneko jarduerak manufaktura-industria eta txikizkako merkataritza dira. Emakumezko gehien duten sektoreak etxeetako zerbitzuei, osasunari, gizarte-zerbitzuei eta hezkuntzari lotutakoak dira. Nahiz eta jarduera gehienetan gizonezkoen batez besteko adina handiagoa izan, zenbait jardueratan emakumezkoen adina askoz handiagoa da. Ostalaritzan eta laguntza-zerbitzuetan, esaterako, emakumezkoak 4 urte nagusiagoak dira, eta etxeetako zerbitzuetan eta jarduera artistikoetan, 2 urte nagusiagoak.

**L**aneko alta emanda dauden afiliatuen % 9 herri-administrazioko langileak dira; horien artean, hiritik bat bitarteko funtzionarioa da, eta, horrenbestez, lan-harreman ezegonkorra du. Oso kolektibo zahartua da; funtzionarioen erdiek 49 urte edo gehiago dituzte, eta lautik batek 55 urte edo gehiago ditu. Lautik batek baino ez ditu 40 urte baino gutxiago.

**L**aneko alta emanda dauden afiliatuen herenari azken urtean eman zaio alta. Alta berrien ehunekoa handiagoa da emakumezkoen artean, kolektibo horren alden % 8,5 baino ez baita 2000. urtea baino lehenago.

**L**angileen gehiengoa, erdia baino apur bat gehiago, sozietate mugatuaren edo pertsona fisikoaren nor-tasun juridikoa duen enpresa bateko enplegatua da.





# Ezaugarri sozial eta demografikoak






LBLIn jasotako datuak populaziora estropolatzen bada, 994.925 pertsona egon dira Gizarte Segurantzaren afiliazio-alta emanda 2015eko uneren batean. Pertsona horietatik 537.650 gizonezkoetat eta 457.275 emakumezkoetat erregistratu ziren. Datuak estropolatu gabe, 39.797 afiliatu zenbatu dira lagin honetan.



**Gizonezko afiliatuak % 54 dira; emakumezkoak, berriz, % 46.** Krisialdiaren hasieran, 2009aren lehen egunetan, Gizarte Segurantzaren laneko alta emanda zeuden emakumezkoen ehunekoa % 42,4koa zen, 3,6 puntu txikiagoa 2015ean baino. Bi arrazoi direla-eta hazi da emakumezkoen ehunekoa afiliatuen guztizkoarekiko: batetik, azken krisialdi honek eragin txikiagoa izan duelako emakumezkoen enpleguan, eta, bestetik, gero eta handiagoa delako ordaindutako enplegudun emakumezkoen proportzioa lan-adinean daudenen piramidearen goiko aldean.

**Emakumezkoen okupazio-ehunekoa txikiagoa da adin-tarte guztietan.** Dena den, aldeak txikiagoak dira 37 urtera artekoetan, eta hortik aurrerakoetan handitzeko joera du. Lan-adinean daudenen piramidean ikus daitekeenez, bi estugune nabarmen daude emakumezkoen lan-jardunean, 40 eta 46 urteko emakumezkoen dagozkien datuetan, hain zuzen. Emakumezkoek lan-merkatuan duten parte-hartzearen estugune horien arrazoiak, esan gabe doa, mendeko pertsonen zainketa-lanetan duten inplikazio handiagoa da, seme-alabenean dutena, batez ere.

**Afiliazio-tasa handiena 40 urte ingurukoena da bi sexuetan.** Gizonezkoen afiliazio-tasa % 90koa da 37 urtetik 47 urtera bitartekoetan; emakumezkoek, berriz, 38 urterekin dute afiliazio-tasa maximoa, % 84,6koa, hortik aurrera beherako joera hartzen baitu. Gizonezkoen tasak % 80ko muga gainditzen du, 25 urtetik 54 urtera bitartekoetan; emakumezkoen tasak, berriz, 35 urtetik 44 urtera bitartekoetan lortzen du maximoa, eta, tarte horretan, % 79,2koa da. Sexuagatiko aldeak gora egiten du adinarekin. Gizonezkoen eta emakumezkoen afiliazio-tasen arteko alderik handienak 44 urtetik aurrerakoak dira. Alde hori 13,6 puntukoa da 45 urtetik 54 urtera bitartekoetan, eta 18 puntukoa, 55 urtetik 64 urtera bitartekoetan. Orotara, gizonezkoen afiliazio-tasa % 76,9koa da, eta emakumezkoena, berriz, % 65,8koa.



Biztanleria eta Gizarte Segurantzaren afiliazio-alta piramidea



**Euskal Autonomia Erkidegoan laneko alta dutenen % 32,2k derrigorrezko ikasketa-maila dute, edo hori ere ez.** % 19,8k batxilergoa ikasi dute; % 21,4k Lanbide Heziketa egin dute, eta % 24,8k unibertsitate-ikasketak dituzte. Gainerako % 1,8k ez dute informaziorik eman.

**Emakumezkoek profil akademiko kualifikatuagoa dute gizonezkoek baino.** Afiliatuen % 30,8k unibertsitate-ikasketak dituzte, eta ehuneko hori 10 puntu handiagoa da gizonezkoena baino (% 19,7). Eskala akademikoaren beste muturrean, oinarrizko ikasketak besterik ez dituzten emakumezkoak % 28,9 dira; maila horretan dauden gizonezkoak, berriz, % 35. Lanbide Heziketa ikasi dutenen ehuneko handiagoa da gizonezkoetan (% 23,2) emakumezkoetan baino (% 19,4). Batxilergodun gizonezko eta emakumezko afiliatuen ehunekoak antzekoak dira.




**Oinarrizko ikasketa-maila (derrigorrezkoa) dutenen taldea da ugariena adin-tarte guztietan,** eta, batez ere, 54 urtetik gorako eta 25 urtetik beherako artean (azken adin-tarte horretan, ikasketa horiek egiten ari direlako). Ehuneko hori txikiagoa da 25 urtetik 54 urtera bitartekoetan, % 32koa gutxi gorabehera.

**Azpimarratzekoa da batxilergodun afiliatuen proportzio txikia 25 urtetik 34 urtera bitartekoetan, kualifikazio-maila altuagoko kolektiboa baita.** Batxilergoko tituludunen proportzioa oso handia da 25 urte baino gutxiagoko artean, horietako asko Lanbide Heziketa edo unibertsitate-ikasketak egiten ari baitira oraindik.

**25 urtetik 54 urtera bitarteko afiliatuen artean, bostetik batek baino gehiagok ditu Lanbide Heziketako ikasketak.** LH dutenen ehuneko handiena, ia lautik bat, 45 urtetik 54 urtera bitarteko taldekoak dira. Adin horretatik aurrera murriztu egiten da ikasketa-profil horretako afiliatuen proportzioa, haien garaian ohikoagoa baitzen lan-arloko ezagutzak lantokian lorzea. LH duten afiliatuen % 58,4 gizonezkoak dira.

**Emakumezkoak gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituztenen artean, ikasketa-maila hori duten afiliatuen % 57,1 emakumezkoak baitira.** Unibertsitate-ikasketak dituztenen proportzioa murriztu egiten da afiliatuen adina handitu ahala. Unibertsitate-ikasketadun afiliatuen proportzio handiena 25 urtetik

44 urtera bitarteko emakumezkoena da, laneko alta emanda dauden adin-tarte horretako afiliatuen bostetik bik baitituzte unibertsitate-ikasketak. Unibertsitate-ikasketadun afiliatuen proportzio handiena 35 urtetik 44 urtera bitartekoena da; adin horretatik gora nabarmen behera egiten baitu unibertsitarioen ehunekoak gutzitzekoarekiko. Adin-tarte horretatik beherako proportzioa ere txikia da, baina, kasu honetan, taldeen neurriagatik, belaunaldi berriek zaharrak ordeztzen ez dituztelako.





**Gizarte Segurantzaren laneko alta emana duten eta lanpostua Euskal Autonomia Erkidegoan duten afiliatuen % 14,1 Araban bizi dira, % 31,1 Gipuzkoan, % 47,7 Bizkaian eta % 7,1 Estatuko beste lekuren batean.** Sexua kontuan hartuta bereizten baditugu, ikus daiteke gizonezkoen proportzioa apur bat handiagoa dela lurralde guztietan: % 53,6koa Araban, % 52,9koa Gipuzkoan eta % 52,8koa Bizkaian. EAEn bizi diren afiliatuen batez besteko adina 44,22 urtekoa da. Bizkaitarrak dira nagusienak, 44,38 urte baitituzte batez beste, eta Arabarrak dira gazteenak, 43,73 urterekin. Gipuzkoarrek 44,18 urte dituzte batez beste. EAEn bizi ez direnak apur bat gazteagoak dira, 41,36 urte baitituzte batez beste.

**Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiten dutenen % 7,1 beste erkidego batean bizi dira, eta % 5,2k ez dituzte bizilekua eta lantokia lurralde historiko berean.** Sexuari erreparatzen badiogu, gizonezkoak dira mugikortasun handiena erakusten dutenak. Euskal Autonomia Erkidegoan lan egin eta kanpoan bizi diren 3 langiletik 2 (% 67,7) gizonezkoak dira. Proportzio hori % 72,9koa da Araban, % 66,2koa Bizkaian eta % 64,3koa Gipuzkoan. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde batetik bestera lekualdatzen direnen % 60,8 gizonezkoak dira. Sexuagatiko aldea txikiagoa da Bizkaian (% 55,8), eta handiagoa Araban (% 63,6) eta Gipuzkoan (% 63,8).

**Euskal Autonomia Erkidegoan langile gehien duten erkidegoak** Kantabria (% 1,4), Nafarroa (% 0,9), Errioxa (% 0,9) eta Burgos (% 0,8) dira, erkidego mugakideak guztiak. Horiez gain, badira Estatuko hiri handietan bizi diren langileak ere, Bartzelonan (% 0,2) eta Madrilen (% 0,5) bizi direnak, hain zuzen. Asturiasetik (% 0,2) eta Coruñatik (% 0,2) datozenak arrantza-sektorearen mugikortasunaren ondorioz datozela jotzen da.

**Arabaren lan egiten duten langileen % 76,8 baino ez dira bizi lurralde horretan; ia lautik bat kanpokoa da.** Araban handia da lan-arrazoiengatik biztanleria-fluxua. Araban lanpostua duten langileen % 13,0 beste autonomia-erkidego batean bizi dira, eta % 10,2, Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde batean. Araban lan egiten dutenen % 7,9 Bizkaian bizi dira, % 4,4 Errioxan, % 3,2 Burgosen, % 2,3 Gipuzkoan eta % 1,1 Nafarroan. Barne-mugikortasunari dagokionez, Biz-

kaiko 13.150 langile hartzen ditu, eta 8.850 langile bidaltzen ditu lurralde horretara. Gipuzkoako 3.750 langilek lan egiten dute Araban, eta Araban bizi diren 3.375 langilek egiten dute lan Gipuzkoan.






**Lanpostua Bizkaian duten langileen % 89,6 lurralde horretan bertan bizi dira, eta gainerako % 10,4, lurraldetik kanpo.** Jarduera Bizkaian duten langileen % 6,7 Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizi dira, eta % 3,7 erkidegoko beste lurralde batean (% 1,9 Gipuzkoan eta % 1,8 Araban). Azpimarratzekoa da Kantabriatik datozen langileen ehunekoa, Bizkaian lan egi-

ten dutenen % 2,6 baitira. Horietatik asko Castro Urdialesen biziko dira, ziurrenik. Langileen % 0,6 Madril-dik datoz, % 0,5 Nafarroatik, % 0,4 Burgosetik, % 0,3 Errioxatik eta % 0,3 Bartzelonatik.

**Gipuzkoan lan egiten dutenen % 90,6 lurralde horretan bertan bizi dira; % 9,36 baino ez da bizi lurralde horretatik kanpo.** Gipuzkoako langileen % 4,53 Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizi dira, eta % 4,38 erkidegoko beste lurralde batean ( % 3,8 Bizkaian eta % 1 Araban). Hurbiltasun geografikoa eta kulturala dela-eta, azpimarratzekoa da Nafarroan bizi diren langileen ehunekoa (% 1,6). Gipuzkoan lan egiten duten langileen ehuneko esanguratsua duten erkidegoak dira Madril (% 0,6), Bartzelona (% 0,3) eta Kantabria (% 0,3). Gipuzkoak du, EAEko hiru lurraldeen artean, lurralde arteko mugikortasun-tasa txikiena.

**Arabian eta Gipuzkoan bizi diren langileen artean, batez bestekoa baino handiagoa da unibertsitarioen ehunekoa.** Bizkaiko ehunekoa EAEko batez bestekoa baino apur bat txikiagoa da parametro horri dagokionez. Erkidegotik kanpo bizi diren langile unibertsitarioen ehunekoa nabarmen txikiagoa da. Araban eta Gipuzkoan lanbide heziketa duten langileen ehunekoa askoz handiagoa da Bizkaian baino. Izan ere, lurralde horretako profil akademikoa apalagoa da EAEko beste lurraldeetako baino, eta oinarrizko ikasketak edota batxilergoa dituzten langileen ehunekoa handiagoa da EAEko batez bestekoa baino. Esan beharra dago, ordea, EAetik kanpo bizi direnek dutela profil apalena. Gironan edo Sorian bizi direnen artekoa da profil unibertsitarioa duten langileen ehuneko handiena, % 40tik gorakoa baita bi lurraldeetan, kasu gutxi diren arren. Ehuneko horretatik hurbil dabilta EAEn lan egin eta Madril bizi diren langileak, % 39,4 baitira unibertsitarioak. Probintzia mugakideen artean, langile unibertsitarioen ehuneko txikia dela-eta azpimarratzekoak dira Kantabria (% 13) eta Burgos (% 18,5).



	EAEko langileen bizilekua				
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Estatua	Guztira
Oinarrizkoak	%30,8	%30,2	%33,3	%36,1	%32,2
Batxiler	%16,9	%17,2	%21,6	%24,9	%19,8
LH	%23,8	%24,9	%19,9	%12,7	%21,4
Unibertsitatekoak	%26,6	%26,7	%24,2	%17,5	%24,8
Informazio gabe	%1,9	%1,1	%1,1	%8,8	%1,8
<b>Guztira</b>	<b>%100,0</b>	<b>%100,0</b>	<b>%100,0</b>	<b>%100,0</b>	<b>%100,0</b>

	EAEko emakume langileen bizilekua				
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Estatua	Guztira
Oinarrizkoak	%27,4	%28,0	%30,3	%24,3	%28,9
Batxiler	%16,3	%16,7	%21,8	%27,2	%19,7
LH	%21,5	%21,8	%17,9	%13,4	%19,4
Unibertsitatekoak	%33,8	%32,6	%29,2	%26,8	%30,8
Informazio gabe	%1,0	%0,9	%0,8	%8,2	%1,2
<b>Guztira</b>	<b>%100,0</b>	<b>%100,0</b>	<b>%100,0</b>	<b>%100,0</b>	<b>%100,0</b>

**Laneko alta duten hiru afiliatutik bik jaio diren EAEko lurralde historiko berean lan egiten dute.** % 7,2 EAEko beste lurralde batean jaiotakoak dira, % 16 Estatuko beste lurralderen batean jaiotakoak dira, eta % 9,3 atzerrian jaiotakoak. Gainerako % 1,4k ez dute horri buruzko informaziorik eman.

**Aipatzekoak dira hiru lurralde historikoen arteko aldeak. Arabak du lurraldean bertan jaiotako langileen ehuneko txikiena.** Jarduera Araban duten langileen erdiak baino gutxiago jaio dira lurralde horretan, % 45,1 baino ez. Langileen % 18 EAEko beste lurralderen batekoak dira, % 22,3 Estatuko beste lekuren batekoak, eta % 11,9 atzerritarrak. Gainerako % 2,5ek ez dute horri buruzko informaziorik eman.




**Gipuzkoak du lurraldean bertan jaiotako langileen ehuneko handiena, % 71,4 baitira han jaiotakoak.** Langileen % 6,2 EAEko beste lurralderen batean jaiotakoak dira, % 12,7 Estatuko beste lekuren batean jaiotakoak, eta % 8,2 atzerrian jaiotakoak. Gainerako % 1,5ek ez dute horri buruzko informaziorik eman.

**Bizkaian, lurraldean bertan jaiotako langileen ehunekoa % 69,5koa da, apur bat txikiagoa Gipuzkoakoa baino.** Langileen % 4,2 baino ez dira jaio EAEko beste lurralderen batean. % 16,2 Estatuko beste lekuren batean jaio dira, eta % 9,2 atzerrian. Gainerako % 1ek ez dute horri buruzko informaziorik eman.

**Estatuko beste lekuren batean jaiotakoei dagokienez,** esan beharra dago Extremadurakoak eta Gaztela eta Leongo mendebaldekoak direla gehientsuenak.

**Atzerrian jaiotakoen ehunekoa handiagoa da Araban beste lurraldeetan baino.** Atzerrian jaiotakoen ia erdiak Latinoamerikatik datoz. Lautik bat Europatik datoz, % 12,2 Afrikatik, % 8 Asiatik eta gainerako % 2,2 munduko beste lekuren batetik.

**Atzerrian jaiotako hiru emakumezkoak bi Latinoamerikatik datoz.** Esan beharra dago, gainera, kolektibo hori dela gizonezko baino emakumezko gehiagoz osatutako bakarra. Gainerakoetan ugariagoak dira gizonezkoak. Afrikatik datozenen artean dago alderik handiena, kolektibo horren % 23,5 bakarrik baita emakumezkoa.







# Laneko ezaugarri eta ezaugarri sozial nagusiak









**Lau afiliatutik hiru Gizarte Segurantza Sistemako erregimen orokor ez-berezikoak dira.** Erregimen Orokorreko afiliatuen % 46,8 emakumezkoak dira, eta hori afiliatuen guztizko kopuruarekiko ehuneko baina handixeagoa da, guztizkoaren % 46 baitira emakumezkoak. Erregimen orokor ez-bereziko afiliatuen batez besteko adina 42,96 urtekoa da, ia urte bat txikiagoa afiliatuen guztizkoarena baino. Emakumezkoak gizonnezkoak baino apur bat gazteagoak dira (42,59 eta 43,29 urte dituzte, hurrenez hurren).

**Erregimen orokor ez-berezia pisu handiagoa du Araban beste lurraldeetan baino, dimentsio handiko enpresek indar handiagoa baitute han.** Lurralde horretan, afiliatuen % 79,7 erregimen horretakoak dira; Gipuzkoan, berriz, % 72,9 baino ez dira. Bizkaian, afiliatuen guztizkoaren % 75,8 dira erregimen orokor ez-berezikoak, eta ehuneko hori oso gertu dago EAEko batez bestekotik.

**Jatorria kontuan hartzen bada, Estatuan jaiotako artean da handiena erregimen horretan afiliatuen ehuneko.** Erregimen Orokorrean afiliatuak hirutik bi baino gutxiago dira Latinoamerikan jaiotako artean (% 57,1), Asian jaiotako artean (% 54,9) eta Afrikan jaiotako artean (% 59,1). Europan jaiotako artean, % 65,6 dira, eta beste leku batzuetatik datozen artean, % 63,5. Aldeak are nabarmenagoak dira sexua kontuan hartzen bada. Latinoamerikan jaiotako emakumezkoen artean, erregimen orokor ez-berezian afiliatutako emakumezkoak ez dira guztizkoaren erdia ere (% 47,4). Izan ere, kolektibo horretako emakumezko askok dihardute etxeko lanetan, eta, horrenbestez, asko dira Erregimen Orokorreko etxeko langileen sistema berezikoak. Antzeko egoeran daude Asiatik datozen emakumezkoak ere, % 42,9 baino ez baitira erregimen orokor ez-berezikoak. Emakumezko horien kasuan, ordea, Autonomoen Erregimenean afiliatuak dira gehien. Europan jaiotako emakumezkoen artean ere handia da etxeko lanetan dihardutenen ehuneko, baina ez latinoamerikarren artean bezainbestekoa.

**Lotura zuzena dago ikasketa-mailaren eta erregimen orokor ez-bereziko izatearen edo ez izatearen artean.** Unibertsitarioen artekoak dira handienak erregimen horretan afiliatuen ehunekoak, eta asko jota derrigorrezko ikasketak egin dituztenen artekoak,

berriz, txikienak. Izan ere, ikasketa-maila baxuenekoak gehiago dira Langile Autonomoen Erregimen Berezian.



**Erregimen Orokor berezietan afiliatuak 54.000 inguru dira, eta erregimen horretako bost langiletik hiru etxeko langileen sistema berezikoak dira.** % 16,1 hitzarmen berezikoak dira, % 15,77 nekazarien sistema berezikoak, % 7,35 artisten sistema berezikoak eta % 0,51 merkatarien sistema berezikoak.





**Etxeko Langileen Erregimenean multzokatutako langileen % 94,9 emakumezkoak dira.** Erregimen horretan afiliatuen batez besteko adina 45,92 urtekoa da, ia 2 urte handiagoa guztizkoaren batez bestekoa baino. Etxeko langileen ehunekoa txikiagoa da Araban, eta handiagoa Bizkaian. Azpimarragarria da Latinoamerikan jaiotako etxeko langileen kolektiboa, handiagoa baita Estatuan jaiotena baino. Profil akademikoa oso apala da, 3tik 2k derrigorrezko ikasketak bakarrik baititutze, asko jota.

**Nekazaritzako Sistemako afiliatuen profila gizonezko gazteena da, batez beste 38 urte eta profil akademikoa apala dituzten eta Araban bizi diren gizonezko gazteena, hain zuzen.** Erregimen horretan afiliatuen % 90 gizonezkoak dira, eta % 72k Araban egiten dute lan. % 28,2 Espainian jaiotakoak dira, eta % 23,2 Afrikan jaiotakoak. Langile horien % 57,8k derrigorrezko ikasketak dituzte, edo horiek ere ez.

**Artisten erregimena ere maskulinizatuta dago. Erregimen horretako langileen profila batez beste 38,6 urte dituzten gizonezko gazteena da, eta handia da Gipuzkoan jaiotako presentzia.** Ia ez dago atzerrian jaiorik, eta asko dira unibertsitate-tituludunak. Erregimen horretan afiliatuen % 70 gizonezkoak dira; % 53,5ek Gipuzkoan dihardute lanean, eta % 31,4k unibertsitate-ikasketak dituzte.

**Oso gutxi dira merkataritza-agenteen erregimen bereziko langileak.** Guztira 300 baino gutxiago dira. Kolektibo horren bereizgarriak dira maskulinizazioa (langile horien % 18,2 baino ez baitira emakumezkoak), Bizkaian errotuta egotea gehienbat, atzeritarren presentzia txikia eta batxilergodunen artean pisu handia izatea.

**Erregimen Orokorreko Hitzarmen Bereziko afiliatuen kolektiboa apur bat maskulinizatuta dago; batez besteko adina handia da, 58,26 urtekoa; Bizkaian kokatuta dago, batez ere,** eta afiliatuen guztizkoaren maila akademikoa bera du, gutxi gorabehera, batxilergodun afiliatuak apur bat gehiago badira ere.



**Ia bost afiliatutik bat, % 18,6, Langile Autonomoen Erregimen Berezikoak dira.** Ehuneko hori apur bat txikiagoa da emakumezkoen artean, % 15, gizonzkoen artean baino, % 21,7. Izan ere, maskulinizazio-maila altuko kolektiboa da, % 63 gizonzkoak baitira.

**Autonomoena kolektibo zahartua da, 47 urte baitituzte batez beste.** Kolektibo horretako langileen laurdenak 55 urte baino gehiago ditu, eta beste laurden batek, 39 urte baino gutxiago. Ez dago adin-alde handirik gizonzkoen eta emakumezkoen artean.

**Langile autonomoen profil akademikoa apur bat apalagoa da afiliatuen gutzitakoarena baino.** Autonomoen % 36,7k derrigorrezko ikasketak baino ez dituzte egin, asko jota, eta ehuneko hori lau puntu handiagoa da gutzitakoari dagokiona baino. % 18,9k baino ez dituzte unibertsitate-ikasketak, eta ehuneko hori bost puntu txikiagoa da afiliatuen gutzitakoari dagokiona baino. Tarteko maila akademikoetan, aldeak txikiagoak dira. Ikasketa-maila apaleneko autonomoak dira batez beste adin handienekoak (48,5 urte), eta unibertsitarioak, berriz, gazteenak (45,14 urte).

**Atzerritar autonomoen ehunekoak % 9koa da, afiliatuen gutzitakoaren ehunekoaren oso antzekoa.** Gizonzko atzerritar autonomoen ehunekoak apur bat handiagoa da afiliatuen gutzitakoarena baino; emakumezkoena, berriz, nabarmen txikiagoa. Atzerritar autonomoak gazteagoak dira bertakoak baino. Azpimarratzekoa da asiarren batez beste adina 38 urtekoa dela, eta latinoamerikarrena eta afrikarrena, berriz, 39 urtekoa. Espainian jaiotakoena batez beste adina 47 urtekoa da.


**Higiezinei lotutako jarduerak dira autonomoen proportzio handienekoak,** kolektibo horretako langileen ia erdia erregimen horretakoak baitira. Eraikuntza da autonomo proportzio handieneko bigarren jarduera, kolektibo horretako 5 langiletik 2 baitira erregimen horretakoak. Autonomoen presentzia handiko jarduerak dira hauek ere: bestelako zerbitzu gisa sailkatutakoak, lehen sektorekoak, merkataritza, garraioa eta jarduera zientifikoak eta teknikoak. Bestelako zerbitzuetan, osasunean eta hezkuntzan baino ez dira ugariagoak emakumezkoak.

**Urari, lehen sektoreari, higiezinei eta erauzketari lotutako jardueretan da handiena batez beste adina (50 urtetik 55 urtera bitartekoa).** Informazioari,


komunikazioari, arteari eta jolasei lotutako jardueretan, berriz, txikiena (43 urtekoa).

**Araba da langile autonomoen proportzio txikieneko lurraldea, eta Gipuzkoa, berriz, handienekoa.** Araban, langileen % 13,5 dira autonomoak, eta Gipuzkoan, % 21,8, hau da, 8,3 puntu gehiago. Bizkaian, ehuneko hori bat dator batez bestearekin. Bizkaikoa da emakumezko langile autonomoen proportzio handiena (% 38,9), eta Arabakoa, berriz, txikiena (% 33,7). Adinari dagokionez, Arabakoak dira langile nagusienak, 48 urte baitituzte batez beste, eta Gipuzkoakoak gazteenak, 46 urte baitituzte batez beste.


**Autonomoen lurraldearen arabera banaketa**



**Emakume autonomoen %**



**Atzerritarren % sexuaren arabera**






**Ez dago alderdi horri buruzko informaziorik laneko alta duten afiliatuen % 22ri dagokionez**, ez baitago maila horretako informaziorik etxeko langileei eta langile autonomoei buruz.

**Kotizazio-talde ugariena lehen eta bigarren mailako ofizialena da**, epigrafe horretan multzokatzen baitira maila horretako informazioa duten afiliatuen %16,3. Industriari eta eraikuntzari hertsiki lotutako taldea da, eta, horrenbestez, maskulinizazio handikoa (% 18,5 baino ez dira emakumezkoak). Ehuneko hori handiagoa da Gipuzkoan eta Araban Bizkaian baino. Talde horretan, oso altua da profil akademiko apaleko langileen proportzioa; handia da, halaber, lanbide-heziketa duten langileen proportzioa; aitzitik, oso txikia da unibertsitarioen proportzioa. Kotizazio-talde horretako afiliatuen % 9,6 atzerritarra dira, Latinoamerikatik eta Europatik etorritakoak, batez ere. Batez besteko adina 44,56 urtekoa da, urte eta erdi handiagoa EAEko batez bestekoa baino. Gizonezkoak dira batez besteko adina handitzen dutenak.

**Bigarren talde ugariena hirugarren mailako ofizialek eta espezialistek osatutakoa da.** Kotizazio-talderen batekoak diren afiliatuen % 13,3 dira, eta lotura handia du aurrekoarekin. Bi talde horien artean osatzen da maila honetako informaziodun afiliatuen % 29,6. Talde hau ere industriarekin eta eraikuntzarekin lotuta dago, eta oso maskulinizatuta dago, aurrekoa baino gutxiago bada ere. Bizkaian da txikiena kotizazio-tarte horretako langileen proportzioa. Oinarrizko maila akademikoa duten afiliatuen proportzio handieneko taldeetako bat da. Langile horien % 14,7 atzerrian jaiotakoak dira, Latinoamerikan jaiotakoak, batez ere. Erregimen horretan afiliatuen batez besteko adina 40,7 urtekoa da, 3 urte pasa txikiagoa EAEko batez bestekoa baino.

**18 urtetik gorako langile ez-kualifikatuena ere kotizazio-talde ugaria da. Talde horretan, bada nolabaiteko oreka bat gizonezkoen eta emakumezkoen artean, emakumezkoak apur bat gehiago diren arren.** Talde hori ugariagoa da Araban EAEko gainerako lurraldeetan baino. Maila akademiko apaleneko taldea da, erdiek baino gehiagok, % 55,2k, ez baitituzte derrigorrezko ikasketak besterik. Txikia da unibertsitate-ikasketak dituztenen proportzioa, baina ez hori bakarrik, txikia da baita lanbide heziketako ikasketak dituztenena ere. Atzerritar afiliatu gehien duen taldea da,

talde horretako langileen % 22 Estatutik kanpo jaiok baitira. Latinoamerikatik datozenak dira gehien, eta, horien atzetik, Afrikatik eta Europatik datozenak. Talde horretako langileen batez besteko adina 2 urte txikiagoa da EAEko batez bestekoa baino, eta gizonezkoena 6 urte txikiagoa da emakumezkoena baino.



**Ofizial administrariak kotizazio-talderen batekoak diren afiliatuen % 13 dira. Feminizatutako taldea da.** Talde honetako 5 langiletik 3 emakumezkoak dira, eta taldeak pisu handiagoa du Bizkaian beste lurraldeetan baino. Talde honetakoak dira maila ertaineko ikasketak dituztenetako asko, eta gutxi dira atzerritarra (atzerritar-proportzio txikieneko taldea da). Batez besteko adina 44,5 urtekoa da, apur bat handiagoa EAEko batez bestekoa baino.

**Administrazio-laguntzaileak afiliatuen % 11,1 dira. Feminizazio-maila altuko taldea da, ia lautik hiru emakumezkoak baitira, eta gazteak.** Batez besteko adina 40,5 urtekoa da, hiru urte eta erdi txikiagoa batez bestekoa baino. Talde horrek pisu handia du Bizkaian, eta gutxi dira atzerritarrek. Kualifikazio gutxi eskatzen duen lana izanik, harritzekoa da hain gutxi izatea oinarrizko ikasketak besterik ez dituztenen presentzia eta handiagoa izatea maila ertaineko ikasketak dituztenena.

**Lizentziadunen eta zuzendaritzako langileen taldea ere ugaria da, kotizazio-taldearen guztizkoaren % 11 baitira. Talde horretan, gizonezko gehiago dago (%53,9), aldea handia ez bada ere.** Bizkaian dago gehien errotuta, eta Araban gutxien. Unibertsitario proportzio handieneko taldea da, lautik hiruk baitituzte goi-mailako ikasketak. Harritzekoa da talde horretan zenbat diren batxilergorainoko ikasketak dituztenak, bigarren talde ugariena baitira (talde horretako langileen % 16,6 dira). Batez besteko adina 44,09 urtekoa da, EAEko batez bestekoaren antzekoa. Emakumezkoak nabarmen gazteagoak dira (42,02 urte), ia lau urte gutxiago baitituzte gizonezkoek baino.

**Erdi-mailako teknikariak kotizazio-taldearen guztizkoaren % 8,8 dira. Hirutik bi emakumezkoak dira, eta atzerritar-proportzio txikieneko taldea da.** Talde horretan, pisu handia dute ikasketa unibertsitarioak dituztenek, lizentziadunen taldean dutenaren antzekoa. Lurraldeei dagokienez, presentzia txikiagoa du Araban gainerako lurraldeetan baino. Batez besteko adina 43,3 urtekoa da, apur bat txikiagoa EAEko batez bestekoa baino.




**Administrazio- eta tailer-buruak kotizazio-taldearen guztizkoaren % 4,4 dira. Afiliatu horien herena baino ez da emakumezkoa, eta handia da batez besteko adina,** 46,22 urtekoa, hain zuzen. Oso txikia da oinarrizko ikasketadunen eta atzerritarren proportzioa. Araba da mota horretako profesionalen proportzio txikieneko lurraldea.

**Mendekoak kotizazio-talderen batekoak diren afiliatuen % 4,9 dira. Feminizazio-maila txikiko taldea da.** Gutxi dira unibertsitarioak, eta atzerritarren proportzioa batez bestekoa baino txikiagoa da.

**Laguntzaile titulugabeena da urriena, afiliatuen % 4,2 baino ez baitira. Talde horretako bost langiletik hiru**

**gizonezkoak dira.** Kualifikazio txikia eskatzen den arren, talde horretako 5 langiletik 1ek unibertsitate-titulua du. Atzerritarren presentzia txikia da, eta lurralde-banaketa orekatua du.

Kotizazio-mailei dagokienez, ikus daiteke eskatzen den kualifikazio-maila txikitu ahala txikitzen dela unibertsitarioen ehunekoak, eta, aitzitik, handitu egiten dela atzerritarren proportzioa.



**727.950 pertsonak dute kontratudun laneko alta Gizarte Segurantzza emanda. 439.800ek kontratu mugagabea dute, eta 288.150ek, berriz, aldi baterakoa.** Kopuru horiek kontuan hartuta, aldi baterako kontratuen tasa % 39,6koa da, askoz handiagoa EINak 2015aren amaieran Biztanleria Aktiboaren Inkestan EAerako kalkulaturako % 23,9a baino.




Horrela, zalantza egin genuen datu horrek LBLJn duen adierazgarritasunari buruz. Alabaina, Estaturako kalkulaturako datuarekin alderatuta, ikusi genuen funsgabetasun bera dagoela hartan ere. Gizarte Segurantzak bere webgunean ematen ditu afiliatuen kontratu motei buruzko datuak. Horren arabera, Erregimen Orokorrean laneko alta zutenen kopurua 12.841.983koa zen 2015eko abenduan. Langile horietatik 7.960.637k kontratu mugagabea zuten, eta 4.881.347k aldi baterakoa. Aldi baterako kontratuen tasa, beraz, % 38koa zen, EINren biztanleria aktiboaren inkestan jasotako % 25,7koa baino askoz handiagoa.

**Aldi baterako kontratuen proportzioa % 41,6koa da emakumezkoen artean, gizonezkoen artekoa baino 3,8 puntu handiagoa.** Kontratu mugagabea dutenen adina 44,1 urtekoa da batez beste; aldi baterako kontratuak dituztenena, berriz, 38,3koa, lehenena baino 5,8 txikiagoa. Kontratu mugagabea dutenen % 25ek 52 urte baino gehiago dituzte, eta beste % 25ek, berriz, 36 baino gutxiago. Aldi baterako kontratua dutenen % 25ek 47 urte baino gehiago dituzte, eta beste % 25ek, berriz, 28 baino gutxiago. Aldi baterako kontratuen tasa askoz handiagoa da gazteen artean, eta txikitu egiten da adinean aurrera egin ahala. Alabaina, ezohiko hazkundera du lan bizitzako azken urteetan.

**Aldi baterako kontratuen tasa askoz handiagoa da Araban gainerako lurraldeetan baino.** Araban, tasa hori % 44,1koa da, Gipuzkoan % 38,7koa, eta Bizkaian, % 38,6koa. Arabakoa da aldi baterako kontratuen tasa altuena gizonezkoetan zein emakumezkoetan, baina Gipuzkoakoan dago alderik handiena gizonezkoen eta emakumezkoen artean, emakumezkoen tasa 7,1 puntu altuagoa baita lurralde horretako gizonezkoena baino. Gizonezkoen artean, Gipuzkoakoa da aldi baterako kontratuen tasa txikiena, eta emakumezkoen artean, berriz, Bizkaikoa.

**Aldi baterako kontratuen tasa handiena duen kotizazio-taldea 18 urtetik gorako langile ez-kualifikatuena**

da. Talde horretan, hiru kontratutik 2k iraupen mugatua dute. Aldi baterako kontratuen tasa % 45ekoa da mendekoen, erdi-mailako teknikarien, administrazio-laguntzaileen eta hirugarren mailako ofizialen eta espezialisten artean. Administrazio- eta tailer-buruen, ofizial administrariaren eta laguntzaile titulugabeen artean, berriz, askoz txikiagoa da, % 25ekoa gutxi gorabehera. Kualifikazio altueneko taldeak, lizentziadun eta zuzendaritzako langileak, tasa nahiko baxua du, % 31,3koa.



**Aldi baterako kontratudun langile gehien duten jarduerak lehen sektorekoak dira, kontratuen % 75,9 baitira mota horretakoak.** Herri-administrazioetakoak dira hurrengoak, % 71,6ko tasa baitute. Kasu horretan, ordea, tasa hain altua izatearen arrazoia beste bat da, funtzionarioak kontratudunen multzoan ez sartzea, hain zuzen. Hala ere, harritzekoa da aldi baterako kontratuen tasa hain handia izatea herri-administrazioetako langileen artean. Harritzekoa da, halaber, tasa hori altuagoa izatea Funtzio Publikoko emakumezkoen artean.

**Aldi baterako kontratuen tasa txikieneko jarduerak finantzei eta aseguruiei lotutakoak dira,** langile horien % 8,9k baino ez baitute mota horretako kontratua. 1.000 afiliatu baino gehiagoko jardueren artean, higieziniei lotutakoak dira hurrena, jardura horietako langileen % 19,4k baitute iraupen mugatuko kontratua. Manufaktura-industrietan, informazioari eta komunikazioari lotutako jardueretan, jardura profesional zientifikoetan eta teknikoetan, eta merkataritzakoean, aldi baterako kontratuen tasa % 23,5etik % 27,7ra bitartekoa da.




**Aldi baterako kontratuen tasa altuak dituzte, halaber,** jardura artistikoei, jolasei lotuei, administrazioeiei, hezkuntzakoek eta osasun-arlokoek, % 64,4tik % 55,2ra bitartekoak, hain zuzen. Batez bestekoaren gainetik daude ur-hornidurari, ostalaritzari, eraikuntzari eta bestelako zerbitzuei lotutako tasak ere.

**Aldi baterako kontratuen tasa txikienak** erdi-mailako, lanbide heziketako edo batxilergoko ikasketak dituztenenak dira. Derrigorrezko ikasketak baino ez dituztenena da tasarik altuena, baina aldi baterako kontratuen tasa oso handia da unibertsitarioen artean ere (lehenena baino 3 puntu baxuagoa besterik ez). Aldi baterako kontratuen tasa handiena unibertsitarioena da emakumezkoen artean, eta derrigorrezko ikasketak baino ez dituztenena gizonen artean. Azken hezkuntza-maila horretan izan ezik, emakumezkoen artekoak dira aldi baterako kontratuen tasak altuenak, hezkuntza-maila guztietan. Harrigarria da emakumezkoen arteko aldi baterako kontratuen tasa altuena unibertsitarioen arteko izatea.

**Aldi baterako kontratuen tasa askoz altuagoa da atzerrian jaiotakoaren artean Estatuan jaiotakoaren artean baino.** Afrikatik datozenen artekoa da altuena,

talde horretako langileen % 68,5ek iraupen mugatuko kontratua baitute. Estatu kanpotik datozenen gainetarako langileen artean, iraupen mugatuko kontratua dutenen proportzioa % 50ekoa da, gutxi gorabehera.

**Atzerrian jaiotakoaren artean, Estatuan jaiotakoaren artean ez bezala, aldi baterako kontratuen tasa handiagoa da gizonen artean.** Afrikako 4 gizonen artean 3k dute aldi baterako kontratua. Afrikar emakumezkoen tasa ere altua da, baina, talde horretan, bitik bat da aldi baterako kontratua duena. Asiatik datozen emakumezkoek dute aldi baterako kontratuen tasa baxuena, talde horretako langileen % 29,3k baitute iraupen mugatuko kontratua.



**Kontratu guztien % 49,7 lanaldi osoko kontratu mugagabeak dira**, % 9,4 aldizkako lan-kontratu finkoak, % 1,3 lanaldi partzialeko kontratu mugagabeak, % 23,6 lanaldi osokoak eta aldi baterakoak, eta gainerako % 16,0 lanaldi partzialekoak eta aldi baterakoak.

**Gizonezkoak gehiago dira lanaldi osoko kontratu mugagabeetan.** Lanaldi osoko kontratu mugagabeen bostetik hiru, % 61,1, gizonezkoenak dira. Iraupen mugatuko eta lanaldi osoko kontratuetan, gizonezkoen proportzioa apur bat txikiagoa da, % 57,9koa. Gizonezkoen egindakoak dira aldizkako lan-kontratu finkoen % 22,1, lanaldi partzialeko eta aldi baterako kontratuen % 21, eta lanaldi partzialeko eta aldi baterako kontratuen % 38,8.

**Lanaldi osoko kontratua eta kontratu mugagabea dutenak dira adin handieneko langileak.** Lanaldi partzialeko kontratu mugagabea dutenak dira beteranoenak, 46,19 urte baitituzte, batez beste. Lanaldi osoko kontratua dutenak dituzte atzetik, 43,96 urterekin, eta hurrena, aldizkako kontratu finkoa dutenak, 43,07 urterekin. Aitzitik, lanaldi osoko eta aldi baterako kontratua duten langileak dira gazteenak, 37,68 urterekin batez beste, eta hurrena, lanaldi partzialeko eta aldi baterako kontratua duten langileak, 39,05 urterekin.




**Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean afiliatutako langileen % 17,3k lanaldi partzialeko kontratua du.** Lanaldi partzialeko kontratuen gehiengoa, % 92,5, iraupen mugatukoa da. Gipuzkoa da lanaldi partzialen ehuneko handiena duen lurraldea, eta 2,2 puntu gaitetik dago Arabarekiko, lanaldi mota horretako soldatapeko gutxien duen lurraldearekiko.

**Lanaldi partzialeko emakumezko afiliatuen ehuneko oso handia da, % 22,8koa, hain zuzen.** Ehuneko hori 10 puntu txikiagoa da gizonezkoetan, % 12,3koa, zehatz esanda. Lanaldi partzialeko langileen ehuneko handiena Gipuzkoan lan egiten duten emakumezkoen dagokien; txikiena, berriz, Araban lan egiten duten gizonezkoen. Lanaldi partzialeko lanari dagokionez, Gipuzkoan eta Bizkaian dago alderik handiena gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Lanaldi osoko langileen batez besteko adina 42,91 urtekoa da, 2,6 urte handiagoa lanaldi partzialekoena baino.

**Zenbat eta baxuagoa izan langileen maila akademikoa, orduan eta handiagoa da lanaldi partzialeko kontratuen proportzioa.** Gehienez ere derrigorrezko

ikasketak egin dituztenen artean, lanaldi partzialeko kontratuen tasa % 20,5koa da. Ehuneko hori txikitu egiten da ikasketa-maila handitu ahala, eta % 14,7koa da unibertsitate-ikasketak dituztenen artean.

**Lanaldi partzialeko kontratuak ohikoagoak dira atzerrian jaiotakoaren artean.** Lanaldi partzialeko kontratuen tasa % 16,7koa da Estatuan jaiotakoaren artean; atzerrian jaiotakoaren artean, berriz, % 20a gainditzen du, munduko edozein eremutan jaiotakoak direla ere, eta % 24,5koa da latinoamerikarren artean. Afrikatik datozen emakumezkoen artekoa da lanaldi partzialeko kontratuen tasa handiena, eta Estatuan jaiotako gizonezkoen artekoa txikiena.



**Lanaldi partzialeko langileen proportzio handiena 18 urtetik gorako langile ez-kualifikatuek osatutako kategoria-taldekoa da**, langile horien % 32,8k baitu la-



naldi partziala. Lanaldi partzialen proportzio altua izateagatik nabarmentzen dira, halaber, mendekoen eta administrazio-laguntzaileen taldeak ere, % 21etik hurbileko ehunekoak baitituzte. Laguntzaile titulugabeen, hirugarren mailako ofizialen eta espezialisten taldeetan, langileen % 17k dute lanaldi partziala. Lanaldi partzialei dagokienez, gizonen eta emakumezkoen arteko alderik handiena kualifikazio baxueko kotizazio-taldeetakoa da. Kualifikaziorik gabeko 18 urte baino gutxiagoko emakumezkoen % 44k dute lanaldi partziala. Euskal Autonomia Erkidegoan, lan-merkatuan lanaldi partziala izatea estu lotuta dago prekarietatearekin, Europako beste leku batzuetan kalitate-plus batekin lotzen bada ere.




**Kualifikazio-maila altueneko kotizazio-taldeetan da txikiena lanaldi partzialen ehunekoa.** Lizentziadunen eta tailer-buruen taldeetan, esaterako, % 8 ingurukoa da. Bada salbuespen harrigarri bat, erdi-mailako teknikariena, talde horretako langileen % 15,4k baitute lanaldi partziala.

**Lanaldi partzialeko langile gehien duen jarduera ostalaritza da, sektore horretako bost langiletik bik, % 41ak, baitute lanaldi partziala.** Hori, ordea, aitortzen dutena da, jakina baita zenbait jardueratan handiagoa dela lanaldi partzialeko afiliazioak egiteko joera, errealitatea oso bestelakoa izan arren, Gizarte Segurantzari lotutako gastuak murrizte aldera. Arterari eta jolasei lotutako jarduerak ere ostalaritzakoaren antzeko tasa dute lanaldi partzialei dagokienez (% 38,4koa). Lanaldi partzialeko kontratuen tasa altua da hezkuntzan, laguntza-zerbitzuetan eta bestelako zerbitzuetan ere, % 30,7tik % 25,4ra artekoa, hain zuzen.

**Lanaldi partziala duten eta lan-denboraren koefizientearen berri eman duten langileen % 37,4k lanaldi osoaren herena baino gutxiago egiten dute lan;** % 40,9k lanaldi osoaren herena baino gehiago eta bi heren baino gutxiago, eta gainerako % 21,7ak, bi heren baino gehiago. Gizonen artean, lanaldi osoaren herena baino txikiagoko lanaldiak dira ohikoena; emakumezkoen artean, berriz, bi herenekoak.

**Lanaldi partzialak gutxiago dira enpresa anonimotan gainerakoetan baino.** Izaera juridikoari dagokienez, sozietate anonimotan, lanaldi partzialak % 11,7 dira, askoz gutxiago sozietate mugatuetan baino (% 16,5). Autonomoen sozietateak dira lanaldi partzial

gehien dutenak. Kooperatibetan % 37,9koa da lanaldi partzialen proportzioa, sozietate komanditarioetan % 33,3koa eta ondasun-erkidegoetan % 27,9koa.





**Afiliatu kopurua dela-eta gehien nabarmentzen diren jarduerak ekonomikoak manufaktura-industria eta txikizkako merkataritza dira**, 2009ko EJSNren letrara arteko bereizketa-maila kontuan hartzen bada. Lehenak afiliatuen % 17,1 barne hartzen du; bigarrenak, berriz, afiliatuen % 14,6. Zerrendan askoz beherago daude osasun-jarduerak (% 9,1), administrazio-jarduerak (% 7,4), ostalaritza (% 7,1), hezkuntza (% 6,4) edo herri-administrazioa (% 5).

Bereizketa-maila handiagoan, EJSNaren hiru zifra artekoan, honako hauek dira afiliatu gehien duten 10 jarduerak: abegi-jarduerak (% 4,1), herri-administrazioa (% 3,5), edari-establezimenduetan (% 3,4), etxeetako jarduerak –etxe lanak egiteko langileei lana ematea– (% 3,4), bigarren hezkuntza (% 3,1), txikizkako merkataritza espezializatu gabeko establezimenduetan (% 3,0), garbiketa-jarduerak (% 2,8), beste artikulua batzuen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan (% 2,5), jatetxeak eta janari-postuak (% 2,4), eta instalazio elektrikoak, iturgintzakoak eta beste instalazio batzuk eraikuntza-objektuetan (% 2,1).

**Emakumezkoen proportzioa handiagoa da etxeeko jardueretan, osasun-jardueretan eta gizarte-zerbitzuetakoetan, eta hezkuntzan** (% 92,9, % 77,8 eta % 67,6, hurrenez hurren). Horiez gain, emakumezkoak gizonenak baino ugariagoak dira beste zenbait jardueretan: beste zerbitzu batzuetan (% 63,6), ostalaritzan (% 56,0), merkataritzan (% 53,8) eta higiezin jarduetan (% 51,4). Gizonenak baino emakumezko gehiago dauden jarduerak guztiak zerbitzuen sektorekoak dira.

Bereizketa-maila handiagoa kontuan hartzen badugu, hauek dira feminizatuen dauden jarduerak: etxeetako jarduerak (% 92,9), helduentzako eta ezgaitu fisikoentzako egoitza-establezimenduetako laguntza (% 90,8), osasun-zaintzak dituzten egoitza-establezimenduetako laguntza (% 88,1), Lehen Hezkuntzaren aurretiko hezkuntza (% 85,1), beste artikulua batzuen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan (% 80,7), beste zerbitzu pertsonal batzuk (% 80,0), abegi-jarduerak (% 79,4), ezintasun intelektuala, buruko gaixotasuna eta drogamenpekotasuna duten pertsonentzako egoitza-establezimenduetako laguntza (% 78,5), osasun eta odontologiako jarduerak (% 78,3), Lehen Hezkuntza (% 77,6) bidai-agentzien eta turismo-

eragileen jarduerak (% 75,7), eta alde aurretik prestatutako janarien hornidura ekitaldietarako eta beste jaki zerbitzu batzuk (% 75,1).



**Afiliatu kopuru handiena duten hamar jarduerak**

Jarduerak	Afiliatuak	emakumeen %
861 Ospitaleko jarduerak	41.100	79,4%
841 Administrazio Publikoa eta ekonomia eta gizarte politikare	35.300	54,5%
563 Edari saltokia	33.975	49,9%
970 Etxeko-jarduerak etxeeko langileen enplegu-emaile	33.700	92,9%
853 Bigarren Hezkuntza	30.875	70,1%
471 Txikizkako merkataritza espezializatu gabeko establezimer	29.450	71,3%
812 Garbiketa jarduerak	27.975	73,4%
477 Saltoki txikia beste salgai batzuk establezimendu bereziak	24.750	80,7%
561 Jatetxeak eta elikagai postuak	23.475	57,5%
432 Instalazio elektrikoak, iturgintzakoak eta beste instalazio b	20.900	12,4%

Langileen batez besteko adinik handieneko jarduera energia-hornikuntza da, baina oso hurbil du herri-administrazioa, bi-bietan 50 urte ingurukoa baita batez besteko adina, 50 eta 49 urtekoa, hurrenez hurren. Administrazioiko lau afiliatutik batek 55 urte baino gehiago dituzte, eta lautik batek baino ez ditu 42 urte baino gutxiago. Hala, afiliatuen % 50 bi adin-tarte horien artekoak dira, eta, horrenbestez, jarduera hori da zahartuena. Administrazioiko emakumezko langileak apur bat gazteagoak dira gizonezkoak baino, batez beste 49 urte baitituzte, eta, gizonezkoek, berriz, 50. Langileen batez besteko adina 47,5 urtetik 44 urtera bitartekoa da erazteko industriako jardueretan, garraio- eta biltegi-jardueretan, higiezinekin lotutakoetan, osasun-jardueretan, gizarte-zerbitzuetako jardueretan, etxeetako jardueretan eta ur-horniduran.



**Arte, aisialdi eta entretenitzeko jardueretako afiliatuak dira gazteenak, 35 urte baitituzte batez beste.**

Profil gazteko jarduerak dira informazioari eta komunikazioari lotutakoak, jarduera zientifikoak eta teknikoak, eta ostalaritzakoak, batez besteko adina 40 urtetik 41 urtera bitartekoa baita jarduera horietan.

**Lehen sektorean, emakumezkoak 9 urte zaharragoak dira gizonezkoak baino, batez beste.** Nahiz eta jarduera gehienetan gizonezkoen batez besteko adina handiagoa izan, zenbait jardueretan emakumezkoen adina askoz handiagoa da. Ostalaritzan eta laguntza-zerbitzuetan, emakumezkoak 4 urte zaharragoak dira, eta etxeetako jardueretan eta jarduera artistikoetan, 2 urte zaharragoak. Gizonezkoak zaharragoak dira gainerako jardueretan. Azpimarratzekoa da energia-horniduran 8,5 urte zaharragoak, finantzetan eta aseguruetan 6 urte zaharragoak, eta higiezinekin lotutakoetan eta ur-horniduran 5 urte zaharragoak izatea.

Bereizketa-maila handiagoa kontuan hartzen bada, hauek dira adin handieneko afiliatuak dituzten jarduerak (50 urtetik 55 urtera bitarteko batez besteko adinekoak): nekazaritzako ustiaketa abelazkuntzako ustiaketaekin konbinatuta (55 urte), ontzigintza (55 urte), derrigorrezko gizarte-segurantza (54 urte), eraispena eta lursailen prestakuntza (52 urte), ordenagailuen eta komunikazio-ekipoen konponketa (50,5 urte), bidaiarien hirien arteko garraioa trenez (50,5 urte), altzairuaren lehen eraldaketako beste produktu batzuen fabrikazioa (50 urte), herri-administrazioa eta politika ekonomiko eta sozialaren administrazioa (49

urte). Aitzitik, 34 urte baino gutxiagoko langileak ditugu liburutegietan, artxibategietan, museoetan eta beste kultura-jarduera batzuetan (33 urte), aisialdiari lotutakoetan (32 urte), eta batzarren eta erakustazokien antolakuntzan (30 urte).



**Urte mediana handiena duten hamar jarduerak**




Jarduerak	Guztira	gizonezkoak	emakumezkoak
15 Nekazaritza produkzioa azienda produkzioarekin nahasia	55,0	54,0	55,0
301 Itsasontzigintza	55,0	55,0	49,5
843 Derrigorrezko Gizarte Segurantza	54,0	54,0	53,5
431 Eraistea eta lursailak prestatzea	51,0	52,0	38,5
951 Ordenagailuak eta komunikazio ekipamenduak konpontze.	50,5	49,5	51,5
491 Hiriarterko garraioa bidaiariak garraiatzea trenez	50,5	53,0	44,0
243 Altzairuaren lehen eraldaketatik beste produktu batzuk eg	50,0	50,0	49,5
841 Administrazio Publikoa eta ekonomia eta gizarte politikare	49,0	51,0	48,0
812 Garbiketa jarduerak	49,0	45,0	50,0
351 Energia elektrikoa sortzea, garraiatzea eta banatzea	49,0	50,0	41,5

**Hezkuntza da kualifikazio-maila handieneko lehen hiru kotizazio-taldeetako afiliatuen ehuneko handiena duen ekonomia-jarduera**, jarduera horretako langileen % 72,1 baitira kolektibo horretakoa. Ondoren, langile gutxiko jarduerak ditu, hala nola ur-hornidura (%52,1) eta informazioari eta komunikazioari lotutakoak (% 48,4). Kualifikazio-maila altuko kolektibo horretakoa dira jarduera hauetako langileen herena inguru: jarduera zientifikoak eta teknikoak, osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetakoak, finantzak eta aseguruak. Kotizazio-talde kualifikatuenetako langileen proportzioa txikiagoa da ostalaritzan, administrazioan, lehen sektorean eta merkataritzan.

**Kualifikazio-maila baxueneko kotizazio-taldeetako langileen proportzio altueneko jarduerak administrazioak, lehen sektorekoak eta ostalaritzakoak dira**, jarduera horietako langileen erdiak baitira kualifikazio baxuko edo kualifikaziorik gabekoen kotizazio-taldeetakoak. Kualifikazio baxueneko taldeetan sartu ditugu mendekoak eta handik aurrerakoak, lehen eta bigarren mailako ofizialak ezik. Halaber, kualifikaziorik gabeko langileen proportzio handiko jarduerak dira ur-hornidurari eta hondakin-urei lotutakoak, osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetakoak, jarduera artistikoak eta aisialdiari lotutakoak. Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetakoak oso polarizatuta daude, asko baitira kualifikazio-maila altuenetako zein baxuenetako taldeetako langileak.

**Lagin honek ez du jasotzen funtzionarioen egoera, eta, horrenbestez, arlo publikoko jardueri buruz dihardugunean, asko dira kualifikazio-maila altuko eta aldi baterako kontratuak.** Alderdi horiei dagokierenez, herri-administrazioa da azpimarragarriena, aldi baterako langile asko baititu. Kualifikazio-maila altuko baina aldi baterako kontratuen ehuneko txikiagoko jarduerak dira energia-hornidura, informazioari eta komunikazioari lotutako jarduerak, jarduera profesionalak, eta finantzei eta aseguruari lotutakoak. Kualifikazio-maila baxueneko eta aldi baterako kontratuen ehuneko handieneko jarduerak lehen sektorekoak, laguntza-jarduerak, ostalaritza eta eraikuntza dira.

**Kualifikazioak ez du ia loturarik ez lanpostuaren egonkortasunarekin ez lanaldi-motarekin.** Alabaina, badago nolabaiteko lotura bat aldi baterako kontratuen eta lanaldi partzialen artean.






**Laneko alta duten langileen % 9, hau da, 83.900 langile, herri-administrazioko langileak dira.** Bost funtzionariotik hiru, % 62,7, emakumezkoak dira. Oso kolektibo zahartua da; funtzionarioen erdiek 49 urte edo gehiago dituzte, eta lautik batek 55 urte edo gehiago ditu. Lautik batek baino ez ditu 40 urte baino gutxiago. Gizonezko funtzionarioak apur bat helduagoak dira emakumezkoak baino, gizonezkoen batez besteko adina 50 urtekoa baita, eta emakumezkoena, berriz, 48 urtekoa. Talde ugariena 54 urte ingurukoak dira, eta asko murrizten da adin horretatik beherako langileen kopurua. Adin-taldearen piramidean ikus daitekeenez, piramidea zabaltzen da 39 urteko emakumezkoen dagokien zerrendan, eta gizonezkoen kopuruaren beherakada nahiko konstantea da 53 urtetik gorako taldeetan.

**Funtzionarioen herena, hots, 31.475 langile, bitarteko funtzionarioak dira, eta, horrenbestez, lanegoera ezegonkorra dute.** Bitarteko langileen proportzioa asko aldatzen da sexua kontutan hartzen bada. Gizonezkoen % 23 baino ez dira bitarteko langileak, eta emakumezkoen artean bitarteko langileen ehunekoak % 42,5koa da. Bitarteko funtzionarioen batez besteko adina 41 urtekoa da, 10 urte txikiagoa karrerako funtzionarioen eta funtzionario estatutarioena baino. Bitartekoak lautik batek 34 urte baino gutxiago ditu, eta, beste laurden batek, 49 urte baino gehiago. Harritzekoa da zenbat diren adin handiko bitarteko funtzionarioak, hasiera batean mota horretako kontratuak egiteko arrazoia beharrezko egoera larri eta behar bezala justifikatuetan karrerako funtzionarioen zereginak betetzea baitzen.

**Funtzionarioen artean, azpimarratzekoa da kotizazio-talde altuenetako langileen proportzioa.** Erdiak bi erretiro-talde altuenetakoak dira; % 20,8 lizentziadunak eta % 29 diplomadunak dira. Halaber, talde ugariak dira ofizial administrariena (% 17,2) eta administrari-laguntzaileena (% 13,3). Apur bat gutxiago dira mendekoak, funtzionarioen % 9,9, hain zuzen.

**Emakumezkoen proportzioa % 57koa da lehen bi kotizazio-taldeetan, ia 20 puntu altuagoa gizonezkoen proportzioa baino.** Emakumezkoen artean, diplomadunena da kotizazio-talde ugariena; gizonezkoen artean, berriz, ofizial administrariena.

**Kotizazio-talde guztiak daude zahartuta.** Tailerburuak dira zaharrenak, 53 urte baitituzte batez beste, eta laguntzaile titulugabeak dira gazteenak, 44 urte baitituzte batez beste.



**Laneko alta duten hiru afiliatutik bati azken urtean eman zaio alta**, % 30,8ari 2010etik 2014ra bitartean, % 25,1ari 2000tik 2009ra bitartean, eta % 11,9k baino ez dute alta 2000. urtea baino lehenagotik emanda. Kontuan hartu behar da, eskuarki altaren data jardueraren hasierakoarekin bat badator ere, litekeena dela alta enplegu-emailearen kotizazio-kontuaren aldaketa baten ondoriozkoa izatea (bat baino gehiago dituelako), batean baja eta bestean alta ematearen ondoriozkoa alegia, eta, horrenbestez, arretaz irakurri behar dela, datuak hurbileko datetara lerratuta baitaude.

**Alta berrien ehunekoa handiagoa da emakumezkoen artean; kolektibo horren alden % 8,5 baino ez dira 2000. urtea baino lehenagokoak.** Emakumezkoen % 34,4ri eman zaie alta joan den urtean; gizonezkoen artean, berriz, % 29,4koa da ehuneko hori. Era berean, emakumezkoen % 34,5i eta gizonezkoen % 27,7ri eman zaie alta 2010etik 2014ra bitartean. Hori horrela izanik, emakumezkoen % 69,9 dira 2009az geroztik alta emandakoak, eta gizonezkoen artean ehuneko hori % 57,1koa da.

**Adinak lotura estua du gizarte-segurantzaren alta emanda egondako denborarekin, normala denez.** 2015ean alta eman dutenek 37 urte dituzte batez beste; 2000. urtea baino lehendik alta emanda daudenek, berriz, 55 urte.




**Era berean, gizarte-segurantzaren alta emanda egondako denborak lotura estua du afiliatuen kualifikazio-mailarekin ere.** Gizarte-segurantzaren urtebete baino gutxiago daramaten langileen ehuneko handienak kualifikazio txikieneko kotizazio-taldeetakoak dira: 18 urtetik gorako langile ez-kualifikatuen artean % 63,0 da; hirugarren mailako ofizialen eta espezialisten artean, % 46,0; administrazio-laguntzaileen artean, % 42,6, eta mendekoen artean, % 40,9.

**Alta emanda urtebete baino ez daramatenen ehuneko handienak dituzten jarduerak errotazio-erritmo handikoak dira.** Hala, alta emanda urtebete baino ez daramaten langile gehien duten jarduerak artistikoak eta aisialdiari lotutakoak (%59,7), administrazio- eta laguntza-jarduerak (% 56,5), ostalaritza (% 51,8) eta hezkuntza (%42,0) dira.

**Esan gabe doa gizarte-segurantzaren alta emanda egondako denbora hertsiki lotuta dagoela kontratuen iraupenarekin.** Kontratu mugagabea dutenen

artean, 2015ean alta emandakoen ehunekoa % 15,6koa baino ez da; aldi baterako kontratatutakoen artean, berriz, % 74,7koa. Kontratu mugagabea dutenen % 10ek 15 urte edo gehiago daramatzate alta emanda; aldi baterako kontratua dutenen artean, % 2,1ekoa da ehuneko hori.

Langileen jatorria kontuan hartuta ere alde handiak daude. Estatuan jaiotako afiliatuen artean, urtebete baino gutxiagoz alta emanda daudenen ehunekoa % 29,8koa da; atzerrian jaiotakoen artean, berriz, % 51,6koa. **Atzerrian jaiotako langileen % 2k baino ez daramatzate 15 urte edo gehiago alta emanda; bertan jaiotakoen artean, berriz, % 13,1ekoa da proportzio hori.**



**2015ean egindako lau afiliatitok hirutan, % 72,5ean, ez da bajaran eman;** % 13,5i baja eman zaie aldi baterako kontratua amaitu dela-eta; % 4,2k norberaren borondatearen aurkako baja eman dute; % 3,5ek, norberaren borondatezko baja; % 1,5ek pentsioa lortu dute; % 1ek jarduera uzteagatik baja, eta gainerako % 3,7k, berriz, beste arrazoiren bat dela-eta.





**Iraupen jakineko kontratuen amaieragatik baja emakumezkoen artean.**

Ehuneko hori % 14,8koa da emakumeen kasuan, eta % 12,4koa gizonezkoen artean, seguru asko, aldi baterako kontratuen tasa handiagoa delako emakumezkoen artean. Mota horretako baja eman dutenen batez besteko adina 35,82 urtekoa da; gazteak dira aldi baterako kontratuen tasa altuena dutenak.

**Emakumezkoek norberaren borondatearen aurkako baja gehiago ematen dute, eta norberaren borondatezko baja gehixeago ematen dituzte gizonezkoek.**

Gizonezkoek lan-egoera hobea izateak azaltzen du norberaren borondatez baja emateko joera handiago hori, berriro lan-munduan sartzeko aukera gehiago eta kaleratuak izateko aukera gutxiago ikusten dituztelako. 38 urte inguruko gazteen artean ematen da baja gehien, izan norberaren borondatezkoak edo izan norberaren borondatearen aurkakoak, eta, alderdi horretan, ez dago alde handirik sexuari dagokionez.





**Gizonezko gehiago igarotzen dira pentsiodun-egoerara emakumezko baino,** erretiroa hartzeko adinean gizonezko gehiago baitago, oraindik. Erretiroa hartzen duten gizonezkoen batez besteko adina 62,43 urtekoa da, emakumezkoena, 62,68koa, baino apur bat txikiagoa. Kontuan hartu behar da epigrafe berean jasotzen direla pentsiodun-egoerara igarotzeagatik baja guztiak, izan erretiroagatik edo izan ezintasunagatik, eta, beraz, erretiroa hartzeko batez besteko adina apur bat handiagoa dela. Batez besteko adin hori txikiagoa da kualifikazio-maila txikieneko kotizazio-taldeetan. Kualifikazio handieneko hiru taldeetan pentsiodun-egoerara igarotzeko batez besteko adina 63 urtekoa da; kualifikazio txikieneko taldeetan, berriz, ozta-ozta ez da 62 urtera iristen. Bestelako zerbitzuei, energiari eta herri-administrazioari lotutako jardueretan lortzen da azkarren pentsioa, 61 urterekin, hain zuzen; aitzitik, higiezinei, urari, informazioari eta finantzei lotutakoetan beranduen, 63,4 urterekin edo gehiagorekin.



**Langile gehienak, erdia baino apur bat gehiago, Sozietate Mugatuaren edo pertsona fisikoaren nortasun juridikoa duen enpresa bateko langileak dira.** Enpresa mota horiek biek antzeko langile-ehunekoa dute: % 27,5koa Sozietate Mugatuak eta % 27,2koa pertsona fisikoak. Bi mota horiek ohikoak dira enpresa txiki eta ertainetan, eta, horrenbestez, ageriko egiten dute zer pisu duten enpresa txiki eta ertainek euskal industria-sarean. Pertsona fisikoaren nortasun juridikoa duten enpresek langile nahiko zahartuak dituzte, batez beste 46 urtekoak, eta nolabaiteko orekari eusten diote sexuari dagokionez, emakumezkoak baitira langileen % 47,9.

**Sozietate Mugatuak langile nahiko gazteak dituzte, batez beste 40 urtekoak, baina, enpresa horietan, bostetik bi langile bakarrik dira emakumezkoak.** Pertsona fisikoaren nortasun juridikoa duten enpresek asko pertsona bakarrekoak direnez, ez da kotizazio-talderik jasotzen. Kotizazio-taldeei dagokionez, esan beharra dago Sozietate Mugatuaren azpimarratzekoa dela zer pisu txikia duten sofistikazio handieneko taldeek, eta, aitzitik, zer pisu handia duten lehen eta bigarren mailako ofizialek (% 22); ia langileen erdia dira kualifikazio txikiko edo kualifikaziorik gabeko taldeetakoak (6., 7., 9. edo 10. taldekoak). Gipuzkoan du arrakastarik handiena ekintzaileen profilak, eta, beraz, lurralde horretan dago mota horretako enpresa gehien (pertsona fisikoaren izaerakoak, batez ere). Aitzitik, Arabak du ehuneko txikiena.

**Ia langileen laurdenak, % 22,6k, egiten dute lan Sozietate Anonimoaren nortasun juridikoa duten enpresentzat.** Mota horretako enpresak handiagoak izan ohi dira, eta asko dira industrian. Maskulinizazio-maila altuko enpresak dira, langileen % 35,1 soilik baitira emakumezkoak. Enpresa horietako langileen adina bat dator EAEko langileen gutzitzaileen batez besteko adinarekin. Aldi baterako eta lanaldi partzialeko kontratu gutxien egiten duten enpresak dira. Sozietate Mugatuaren bezala, lehen eta bigarren mailako ofizialak dira ugariak (% 20); alabaina, enpresa hauetan, txikiagoa da kualifikazio txikiko edo kualifikaziorik gabeko langileen pisua (% 39). Araba da Sozietate Anonimoetako langileen proportzio handiena duen lurraldea; Gipuzkoa, berriz, proportzio txikiena duena. Izan ere, enpresa handi gehiago dago Araban.










**Sektore publikoko langileak ia 120.000 dira, langileen guztiko kopuruaren % 12,1.** Kolektibo feminizatua da, bost langiletik hiru baino gehiago emakumezkoak baitira, eta zahartua, batez besteko adina 48 urtekoa baita. Kualifikazio maila altueneko kotizazio-taldeetako langileen (lizentziadun eta diplomadunena) ehuneko altua du. Ugariak dira administrariak eta administrari-laguntzaileak ere. Sektore publikoko langileen ehunekoa 2 puntu handiagoa da Araban EAeko batez bestekoa baino (izan ere, Gasteiz da EAeko administrazio-hiriburua); Gipuzkoan, berriz, 1,3 puntu txikiagoa da.

**Autonomoen elkarten enpresetakoak dira afiliatu guztien % 5,7.** Nahiko feminizatutako enpresak dira, langileen % 56,6 baitira emakumezkoak; langile gazteak dituzte, 40 urtekoak batez beste, eta ez da kotizazio-talderik argi gailentzen. Mota horretako enpresen ehunekoa handiagoa da Araban eta Gipuzkoan, Bizkaian baino. Kontratu bidezko harremanek ezegonkortasun handia erakusten dute.

**Lagin jarraituaren arabera, kooperatibistak 25.500 inguru direla jotzen da, langileen guztiko kopuruaren % 2,6.** Mota horretako afiliatuen profila feminizatua eta gaztea da, 5 langiletik 3 emakumezkoak baitira eta batez besteko adina 38 urtekoa baita, eta pisu handia du diplomadunen kotizazio-taldeak. Proportzioan, mota horretako enpresa gehiago dago Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian baino; izan ere, kooperatibak tradizio handiko enpresak dira Gipuzkoako lurraldean, eta Mondragon taldea da errealitate horren adibide nabarmenena.

**Ugariak dira erlijio-izaerako entitateetan lan egiten duten langileak ere, 11.000 inguru baitira.** 2015ean laneko alta emandako afiliatuen guztizkoaren % 1,1 dira. Oso kolektibo feminizatua da (10etik 7 emakumezkoak dira), eta langile horien batez besteko adina 44 urtekoa da (apur bat handiagoa EAeko guztizkoarena baino). Askok dira kualifikazio-maila altuko kotizazio-taldeetakoak, eta pisu handiagoa dute Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan baino. Uste dugu epigrafe horretan biltzen direla ordena erlijiosoek kudeatutako hezkuntza sistemako langileak, eta horregatik dela hain handia kualifikazio handiko langileen ehunekoa.



Atal honetan langile autonomoak aztertuko ditugu (pertsona fisikoak), beste autonomo batzuekin edota enplegatzaileekin duten erlazioaren mende. Horrek, beste egoera batzuen artean, kooperatibetako edo enpresa kolektiboetako bazkide diren autonomoak identifikatzeko aukera ematen du, baita ekonomikoki mendekoak diren langile autonomoak identifikatzeko ere.

**Pertsona fisiko, hots, langile autonomo, nortasun juridikoa duten 270.975 afiliatuetatik 71.150, hau da, laurdena pasatxo, kooperatibaren bateko bazkide edota enpresa kolektibo bateko kide dira.** Jakina da lan kooperatiboa sakon errotuta dagoela Euskal Autonomia Erkidegoan.

Gipuzkoa da mota horretako langileen ehuneko handiena duen lurraldea, autonomo kooperatibisten % 46,5 bizi baitira lurralde horretan. % 43,9 Bizkaian bizi dira, eta gainerako % 9,6a, Araban. **Aski ezaguna da mugimendu kooperatibistak Gipuzkoan duen tradizioa.**

Autonomo kooperatibisten batez besteko adina 45 urtekoa da, 2 urte handiagoa EAEko batez bestekoa baino. % 25ek 53 urte edo gehiago dituzte, eta beste % 25 ez dira iristen 39 urtera.

**Maskulinizazio-maila handiko kolektiboa da, % 37,9 baino ez baitira emakumezkoak.** Bizkaian % 45,3 diren arren emakumeak, Gipuzkoan % 32,5 besterik ez dira, eta, Araban, % 30,2.


**Autonomoen nortasun juridikoa duten kooperatibisten kolektiboko lau afiliatutik batek lanbide heziketako ikasketak ditu,** eta ehuneko hori lau puntu pasa handiagoa da EAEko batez bestekoa baino.

**Jarduera ekonomikoei dagokienez, industria da, batez ere, autonomo kooperatibisten ehuneko handiena duena.** Asko dira merkataritzan ere, eta apur bat gutxiago eraikuntzan.


Aldagai hau aztertuta identifika daitezkeen kolektiboetako beste bat ekonomikoki mendekoak diren langile autonomoena da. Langile autonomo bat ekonomikoki mendekoa dela jotzen da haren jarduera ekonomiko edo profesionalaren etekinen % 75 edo gehiago enpresa edo bezero batentzat egindako lanetik lortzen

duenean. Langile mota horrek eztabaida ugari piztu du, lotuta baitago sasi-autonomoekin. Tamalez, ordean, LBLJko epigrafe horretan jasotako kasuak hain gutxi izanik, ezin dira estrapolatu.


**Autonomoak, beste entitate batzuekiko harremanaren arabera**




**Kooperatibista**



**Kooperatibistak jardueraren arabera**





**ERANSKINAK**



Afiliatuak sexuaren eta adinaren arabera									
Adina	Afiliatuak			Portzentaje bertikala			Portzentaje horizontala		
	gizon- ezkoak	emakumez- koak	Guztira	gizonez- koak	emakumez- koak	Guztira	gizonez- koak	emakumez- koak	Guztira
16-24	29.450	24.450	<b>53.900</b>	5,5%	5,3%	<b>5,4%</b>	54,6%	45,4%	<b>100,0%</b>
25-34	97.825	91.550	<b>189.375</b>	18,2%	20,0%	<b>19,0%</b>	51,7%	48,3%	<b>100,0%</b>
35-44	160.350	137.650	<b>298.000</b>	29,8%	30,1%	<b>30,0%</b>	53,8%	46,2%	<b>100,0%</b>
45-54	144.900	122.125	<b>267.025</b>	27,0%	26,7%	<b>26,8%</b>	54,3%	45,7%	<b>100,0%</b>
55-64	96.900	75.450	<b>172.350</b>	18,0%	16,5%	<b>17,3%</b>	56,2%	43,8%	<b>100,0%</b>
> 65	8.150	5.975	<b>14.125</b>	1,5%	1,3%	<b>1,4%</b>	57,7%	42,3%	<b>100,0%</b>
<b>Guztira</b>	<b>537.650</b>	<b>457.275</b>	<b>994.925</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>54,0%</b>	<b>46,0%</b>	<b>100,0%</b>

Afiliatuak sexuaren, adinaren eta ikasketen arabera																
Sexua	Adina	Afiliatuak					Portzentaje horizontala					Portzentaje bertikala				
		Oinarriz- koak	Batxil- er	LH	Unibertsita- tekoak	Guztira	Oinarriz- koak	Batxil- er	LH	Unibertsita- tekoak	Guztira	Oinarriz- koak	Batxil- er	LH	Unibertsita- tekoak	Guztira
Gizonezkoak	16-24	11.250	7.725	6.475	3.275	<b>29.450</b>	38,2%	26,2%	22,0%	11,1%	<b>100,0%</b>	6,0%	7,2%	5,2%	3,1%	<b>5,5%</b>
	25-34	31.725	16.675	24.525	21.975	<b>97.825</b>	32,4%	17,0%	25,1%	22,5%	<b>100,0%</b>	16,9%	15,6%	19,7%	20,7%	<b>18,2%</b>
	35-44	50.625	33.750	37.275	35.225	<b>160.350</b>	31,6%	21,0%	23,2%	22,0%	<b>100,0%</b>	26,9%	31,5%	29,9%	33,2%	<b>29,8%</b>
	45-54	48.650	28.950	36.425	27.875	<b>144.900</b>	33,6%	20,0%	25,1%	19,2%	<b>100,0%</b>	25,9%	27,0%	29,3%	26,3%	<b>27,0%</b>
	55-64	41.850	18.925	18.550	16.000	<b>96.900</b>	43,2%	19,5%	19,1%	16,5%	<b>100,0%</b>	22,2%	17,7%	14,9%	15,1%	<b>18,0%</b>
	> 65	3.975	1.075	1.225	1.650	<b>8.150</b>	48,8%	13,2%	15,0%	20,2%	<b>100,0%</b>	2,1%	1,0%	1,0%	1,6%	<b>1,5%</b>
<b>Guztira</b>	<b>188.125</b>	<b>107.100</b>	<b>124.500</b>	<b>106.000</b>	<b>537.650</b>	<b>35,0%</b>	<b>19,9%</b>	<b>23,2%</b>	<b>19,7%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	
Emakumezkoak	16-24	6.025	8.775	3.925	5.300	<b>24.450</b>	24,6%	35,9%	16,1%	21,7%	<b>100,0%</b>	4,6%	9,8%	4,4%	3,8%	<b>5,3%</b>
	25-34	19.700	14.950	16.925	38.550	<b>91.550</b>	21,5%	16,3%	18,5%	42,1%	<b>100,0%</b>	14,9%	16,6%	19,1%	27,4%	<b>20,0%</b>
	35-44	29.475	30.050	26.550	49.800	<b>137.650</b>	21,4%	21,8%	19,3%	36,2%	<b>100,0%</b>	22,3%	33,4%	29,9%	35,4%	<b>30,1%</b>
	45-54	36.250	23.700	28.000	33.000	<b>122.125</b>	29,7%	19,4%	22,9%	27,0%	<b>100,0%</b>	27,5%	26,3%	31,5%	23,4%	<b>26,7%</b>
	55-64	36.625	11.750	12.650	13.600	<b>75.450</b>	48,5%	15,6%	16,8%	18,0%	<b>100,0%</b>	27,8%	13,1%	14,2%	9,7%	<b>16,5%</b>
	> 65	3.850	725	725	625	<b>5.975</b>	64,4%	12,1%	12,1%	10,5%	<b>100,0%</b>	2,9%	0,8%	0,8%	0,4%	<b>1,3%</b>
<b>Guztira</b>	<b>131.975</b>	<b>89.975</b>	<b>88.775</b>	<b>140.875</b>	<b>457.275</b>	<b>28,9%</b>	<b>19,7%</b>	<b>19,4%</b>	<b>30,8%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	
Guztira	16-24	17.275	16.500	10.400	8.575	<b>53.900</b>	32,1%	30,6%	19,3%	15,9%	<b>100,0%</b>	5,4%	8,4%	4,9%	3,5%	<b>5,4%</b>
	25-34	51.425	31.625	41.450	60.525	<b>189.375</b>	27,2%	16,7%	21,9%	32,0%	<b>100,0%</b>	16,1%	16,0%	19,4%	24,5%	<b>19,0%</b>
	35-44	80.100	63.800	63.825	85.025	<b>298.000</b>	26,9%	21,4%	21,4%	28,5%	<b>100,0%</b>	25,0%	32,4%	29,9%	34,4%	<b>30,0%</b>
	45-54	84.900	52.650	64.425	60.875	<b>267.025</b>	31,8%	19,7%	24,1%	22,8%	<b>100,0%</b>	26,5%	26,7%	30,2%	24,7%	<b>26,8%</b>
	55-64	78.475	30.675	31.200	29.600	<b>172.350</b>	45,5%	17,8%	18,1%	17,2%	<b>100,0%</b>	24,5%	15,6%	14,6%	12,0%	<b>17,3%</b>
	> 65	7.825	1.800	1.950	2.275	<b>14.125</b>	55,4%	12,7%	13,8%	16,1%	<b>100,0%</b>	2,4%	0,9%	0,9%	0,9%	<b>1,4%</b>
<b>Guztira</b>	<b>320.100</b>	<b>197.075</b>	<b>213.275</b>	<b>246.875</b>	<b>994.925</b>	<b>32,2%</b>	<b>19,8%</b>	<b>21,4%</b>	<b>24,8%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	

ADINA	guztira			gizonezkoak			emakumezkoak		
	biztanleria	afiliatuak	afiliazio tasa	biztanleria	afiliatuak	afiliazio tasa	biztanleria	afiliatuak	afiliazio tasa
16-24	162.458	53.900	33,2%	83.490	29.450	35,3%	78.968	24.450	31,0%
25-34	237.207	189.375	79,8%	119.428	97.825	81,9%	117.779	91.550	77,7%
35-44	355.053	298.000	83,9%	181.250	160.350	88,5%	173.803	137.650	79,2%
45-54	343.858	267.025	77,7%	171.541	144.900	84,5%	172.317	122.125	70,9%
55-64	294.897	172.350	58,4%	143.121	96.900	67,7%	151.776	75.450	49,7%
<b>Guztira</b>	<b>1.393.473</b>	<b>994.925</b>	<b>71,4%</b>	<b>698.830</b>	<b>537.650</b>	<b>76,9%</b>	<b>694.643</b>	<b>457.275</b>	<b>65,8%</b>

Afiliatuak lanpostuaren lurraldea eta jaiotze lekuaren arabera								
Jaiotze lekua	Lanpostuaren lurraldea							
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE
Lurraldean bertan	75.000	234.725	347.400	<b>657.125</b>	45,1%	71,4%	69,5%	<b>66,0%</b>
EAEko beste lurralde bat	30.150	20.375	20.950	<b>71.475</b>	18,1%	6,2%	4,2%	<b>7,2%</b>
Estatua	37.050	41.625	80.825	<b>159.500</b>	22,3%	12,7%	16,2%	<b>16,0%</b>
Atzerria	19.850	26.900	45.850	<b>92.600</b>	11,9%	8,2%	9,2%	<b>9,3%</b>
Zehaztu gabe	4.200	4.975	5.050	<b>14.225</b>	2,5%	1,5%	1,0%	<b>1,4%</b>
<b>Guztira</b>	<b>166.250</b>	<b>328.600</b>	<b>500.075</b>	<b>994.925</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>

Bizilekua	Kotizazio Kontuaren Helbidea				% bertikala			
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira
1 Araba	127.650	3.375	8.850	<b>139.875</b>	76,8%	1,0%	1,8%	<b>14,1%</b>
2 Albacete	50	0	150	<b>200</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
3 /Alacant	200	325	275	<b>800</b>	0,1%	0,1%	0,1%	<b>0,1%</b>
4 Almeria	25	75	100	<b>200</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
5 Avila	0	100	100	<b>200</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
6 Badajoz	125	50	175	<b>350</b>	0,1%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
7 Balear uharteak	75	250	275	<b>600</b>	0,0%	0,1%	0,1%	<b>0,1%</b>
8 Bartzelona	300	850	1.250	<b>2.400</b>	0,2%	0,3%	0,3%	<b>0,2%</b>
9 Burgos	5.275	375	2.200	<b>7.850</b>	3,2%	0,1%	0,4%	<b>0,8%</b>
10 Caceres	75	150	125	<b>350</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
11 Cádiz	150	150	550	<b>850</b>	0,1%	0,0%	0,1%	<b>0,1%</b>
12 Castello	125	100	25	<b>250</b>	0,1%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
13 Ciudad Real	75	75	175	<b>325</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
14 Córdoba	50	25	400	<b>475</b>	0,0%	0,0%	0,1%	<b>0,0%</b>
15 Coruña	125	450	1.025	<b>1.600</b>	0,1%	0,1%	0,2%	<b>0,2%</b>
16 Cuenca	75	0	0	<b>75</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
17 Girona	25	100	125	<b>250</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
18 Granada	175	75	175	<b>425</b>	0,1%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
19 Guadalajara	25	0	100	<b>125</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
20 Gipuzkoa	3.750	295.000	9.700	<b>308.450</b>	2,3%	90,6%	1,9%	<b>31,1%</b>
21 Huelva	125	25	175	<b>325</b>	0,1%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
22 Huesca	50	75	0	<b>125</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
23 Jaén	500	100	75	<b>675</b>	0,3%	0,0%	0,0%	<b>0,1%</b>
24 León	125	200	500	<b>825</b>	0,1%	0,1%	0,1%	<b>0,1%</b>
25 Lleida	250	75	100	<b>425</b>	0,2%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
26 Errioxa	7.325	400	1.550	<b>9.275</b>	4,4%	0,1%	0,3%	<b>0,9%</b>
27 Lugo	75	0	250	<b>325</b>	0,0%	0,0%	0,1%	<b>0,0%</b>
28 Madril	825	1.825	2.800	<b>5.450</b>	0,5%	0,6%	0,6%	<b>0,5%</b>
29 Malaga	125	225	225	<b>575</b>	0,1%	0,1%	0,0%	<b>0,1%</b>
30 Murtzia	400	100	425	<b>925</b>	0,2%	0,0%	0,1%	<b>0,1%</b>
31 Nafarroa	1.900	5.075	2.425	<b>9.400</b>	1,1%	1,6%	0,5%	<b>0,9%</b>
32 Ourense	125	50	125	<b>300</b>	0,1%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
33 Asturias	325	325	1.025	<b>1.675</b>	0,2%	0,1%	0,2%	<b>0,2%</b>
34 Palentzia	100	25	125	<b>250</b>	0,1%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
35 Palmas (Las)	25	150	400	<b>575</b>	0,0%	0,0%	0,1%	<b>0,1%</b>
36 Pontevedra	150	300	975	<b>1.425</b>	0,1%	0,1%	0,2%	<b>0,1%</b>
37 Salamanca	175	50	275	<b>500</b>	0,1%	0,0%	0,1%	<b>0,1%</b>
38 Santa Cruz Tenerifekoa	50	150	175	<b>375</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
39 Kantabria	625	825	12.750	<b>14.200</b>	0,4%	0,3%	2,6%	<b>1,4%</b>
40 Segovia	25	0	50	<b>75</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
41 Sevilla	25	225	275	<b>525</b>	0,0%	0,1%	0,1%	<b>0,1%</b>
42 Soria	0	25	100	<b>125</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
43 Tarragona	175	225	125	<b>525</b>	0,1%	0,1%	0,0%	<b>0,1%</b>
44 Teruel	50	25	50	<b>125</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
45 Toledo	200	175	75	<b>450</b>	0,1%	0,1%	0,0%	<b>0,0%</b>
46 Valentzia	250	375	525	<b>1.150</b>	0,2%	0,1%	0,1%	<b>0,1%</b>
47 Valladolid	200	175	350	<b>725</b>	0,1%	0,1%	0,1%	<b>0,1%</b>
48 Bizkaia	13.150	12.350	447.725	<b>473.225</b>	7,9%	3,8%	89,6%	<b>47,7%</b>
49 Zamora	150	25	100	<b>275</b>	0,1%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
50 Zaragoza	375	350	325	<b>1.050</b>	0,2%	0,1%	0,1%	<b>0,1%</b>
51 Ceuta	0	25	0	<b>25</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
<b>Guztira</b>	<b>166.250</b>	<b>328.600</b>	<b>500.075</b>	<b>994.925</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>

Jaiotze lekua	Afiliatuak sexuaren, lanpostuaren lurraldea eta jaiotze lekuaren arabera											
	Lanpostuaren lurraldea gizonezkoak				Lanpostuaren lurraldea emakumezkoak				Lanpostuaren lurraldea guztira			
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira
Zehaztu gabe	3.425	3.175	3.450	<b>10.050</b>	775	1.800	1.600	<b>4.175</b>	4.200	4.975	5.050	<b>14.225</b>
1 Araba	39.400	2.225	3.075	<b>44.700</b>	35.600	2.375	3.125	<b>41.100</b>	75.000	4.600	6.200	<b>85.800</b>
2 Albacete	50	125	350	<b>525</b>	75	100	150	<b>325</b>	125	225	500	<b>850</b>
3 Alacant	75	225	225	<b>525</b>	100	75	250	<b>425</b>	175	300	475	<b>950</b>
4 Almeria	50	50	75	<b>175</b>	0	50	50	<b>100</b>	50	100	125	<b>275</b>
5 Avila	200	300	400	<b>900</b>	175	100	175	<b>450</b>	375	400	575	<b>1.350</b>
6 Badajoz	325	1.225	2.000	<b>3.550</b>	250	1.100	1.425	<b>2.775</b>	575	2.325	3.425	<b>6.325</b>
7 Balear uharteak	75	75	150	<b>300</b>	0	25	175	<b>200</b>	75	100	325	<b>500</b>
8 Bartzelona	525	875	1.400	<b>2.800</b>	175	850	1.125	<b>2.150</b>	700	1.725	2.525	<b>4.950</b>
9 Burgos	4.100	1.025	3.750	<b>8.875</b>	2.925	850	3.175	<b>6.950</b>	7.025	1.875	6.925	<b>15.825</b>
10 Caceres	1.425	2.175	2.200	<b>5.800</b>	750	1.350	1.400	<b>3.500</b>	2.175	3.525	3.600	<b>9.300</b>
11 Cádiz	250	225	850	<b>1.325</b>	200	125	350	<b>675</b>	450	350	1.200	<b>2.000</b>
12 Castello	25	75	50	<b>150</b>	50	125	50	<b>225</b>	75	200	100	<b>375</b>
13 Ciudad Real	225	225	600	<b>1.050</b>	25	125	225	<b>375</b>	250	350	825	<b>1.425</b>
14 Córdoba	375	300	700	<b>1.375</b>	75	250	225	<b>550</b>	450	550	925	<b>1.925</b>
15 Coruña	450	850	2.225	<b>3.525</b>	175	450	1.300	<b>1.925</b>	625	1.300	3.525	<b>5.450</b>
16 Cuenca	75	75	100	<b>250</b>	25	175	150	<b>350</b>	100	250	250	<b>600</b>
17 Girona	0	50	50	<b>100</b>	25	75	0	<b>100</b>	25	125	50	<b>200</b>
18 Granada	400	350	550	<b>1.300</b>	250	200	375	<b>825</b>	650	550	925	<b>2.125</b>
19 Guadalajara	75	50	150	<b>275</b>	50	0	50	<b>100</b>	125	50	200	<b>375</b>
20 Gipuzkoa	4.300	126.775	7.775	<b>138.850</b>	4.550	107.950	6.975	<b>119.475</b>	8.850	234.725	14.750	<b>258.325</b>
21 Huelva	75	150	425	<b>650</b>	75	100	300	<b>475</b>	150	250	725	<b>1.125</b>
22 Huesca	75	125	125	<b>325</b>	75	150	25	<b>250</b>	150	275	150	<b>575</b>
23 Jaén	500	275	425	<b>1.200</b>	175	275	425	<b>875</b>	675	550	850	<b>2.075</b>
24 León	925	1.000	2.525	<b>4.450</b>	675	500	1.875	<b>3.050</b>	1.600	1.500	4.400	<b>7.500</b>
25 Lleida	0	175	150	<b>325</b>	100	50	25	<b>175</b>	100	225	175	<b>500</b>
26 Errioxa	4.150	600	1.175	<b>5.925</b>	2.100	500	1.375	<b>3.975</b>	6.250	1.100	2.550	<b>9.900</b>
27 Lugo	200	200	975	<b>1.375</b>	225	175	1.075	<b>1.475</b>	425	375	2.050	<b>2.850</b>
28 Madril	950	1.500	2.675	<b>5.125</b>	600	975	1.950	<b>3.525</b>	1.550	2.475	4.625	<b>8.650</b>
29 Malaga	100	250	950	<b>1.300</b>	200	175	550	<b>925</b>	300	425	1.500	<b>2.225</b>
30 Murtzia	125	150	275	<b>550</b>	75	175	100	<b>350</b>	200	325	375	<b>900</b>
31 Nafarroa	1.375	2.875	1.550	<b>5.800</b>	1.250	3.300	1.975	<b>6.525</b>	2.625	6.175	3.525	<b>12.325</b>
32 Ourense	450	550	1.025	<b>2.025</b>	450	325	550	<b>1.325</b>	900	875	1.575	<b>3.350</b>
33 Asturias	375	375	1.450	<b>2.200</b>	375	375	1.175	<b>1.925</b>	750	750	2.625	<b>4.125</b>
34 Palentzia	500	700	2.125	<b>3.325</b>	475	475	1.375	<b>2.325</b>	975	1.175	3.500	<b>5.650</b>
35 Palmas (Las)	25	100	200	<b>325</b>	75	25	250	<b>350</b>	100	125	450	<b>675</b>
36 Pontevedra	275	700	1.250	<b>2.225</b>	100	500	475	<b>1.075</b>	375	1.200	1.725	<b>3.300</b>
37 Salamanca	975	1.400	2.125	<b>4.500</b>	400	1.150	1.400	<b>2.950</b>	1.375	2.550	3.525	<b>7.450</b>
38 Santa Cruz Tenerifekoa	100	50	150	<b>300</b>	50	100	75	<b>225</b>	150	150	225	<b>525</b>
39 Kantabria	650	825	5.325	<b>6.800</b>	325	675	3.775	<b>4.775</b>	975	1.500	9.100	<b>11.575</b>
40 Segovia	50	125	375	<b>550</b>	75	175	225	<b>475</b>	125	300	600	<b>1.025</b>
41 Sevilla	125	425	475	<b>1.025</b>	150	275	600	<b>1.025</b>	275	700	1.075	<b>2.050</b>
42 Soria	50	175	275	<b>500</b>	50	175	275	<b>500</b>	100	350	550	<b>1.000</b>
43 Tarragona	100	225	150	<b>475</b>	50	25	50	<b>125</b>	150	250	200	<b>600</b>
44 Teruel	25	25	125	<b>175</b>	0	0	50	<b>50</b>	25	25	175	<b>225</b>
45 Toledo	100	175	150	<b>425</b>	50	100	125	<b>275</b>	150	275	275	<b>700</b>
46 Valentzia	200	300	375	<b>875</b>	200	350	425	<b>975</b>	400	650	800	<b>1.850</b>
47 Valladolid	500	375	1.325	<b>2.200</b>	300	625	1.100	<b>2.025</b>	800	1.000	2.425	<b>4.225</b>
48 Bizkaia	13.375	8.975	182.950	<b>205.300</b>	7.925	6.800	164.450	<b>179.175</b>	21.300	15.775	347.400	<b>384.475</b>
49 Zamora	625	625	1.900	<b>3.150</b>	300	375	1.400	<b>2.075</b>	925	1.000	3.300	<b>5.225</b>
50 Zaragoza	275	375	675	<b>1.325</b>	125	350	450	<b>925</b>	400	725	1.125	<b>2.250</b>
51 Ceuta	0	0	0	<b>0</b>	0	25	25	<b>50</b>	0	25	25	<b>50</b>
52 Melilla	25	25	100	<b>150</b>	25	0	50	<b>75</b>	50	25	150	<b>225</b>
66 Atzerrian jaiotakoak	11.625	12.850	21.900	<b>46.375</b>	8.225	14.050	23.950	<b>46.225</b>	19.850	26.900	45.850	<b>92.600</b>
<b>Guztira</b>	<b>94.725</b>	<b>177.125</b>	<b>265.800</b>	<b>537.650</b>	<b>71.525</b>	<b>151.475</b>	<b>234.275</b>	<b>457.275</b>	<b>166.250</b>	<b>328.600</b>	<b>500.075</b>	<b>994.925</b>

Afiliatuak sexuaren eta erregimen motaren arabera							
Erregimena	Gizonezko Emakume:Guztira			Gizonezko Emakume:Guztira			emakume
111 ERREGIMEN OROKORRA	399.250	351.625	<b>750.875</b>	74,3%	76,9%	<b>75,5%</b>	46,8%
112 ERREGIMEN OROKORRA (ARTISTAK)	2.775	1.200	<b>3.975</b>	0,5%	0,3%	<b>0,4%</b>	30,2%
121 ERREGIMEN OROKORRA (MERKATARITZAKO ORDEZKA)	225	50	<b>275</b>	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>	18,2%
138 ERREGIMEN OROKORRA (ETXEKO LANGILEAK)	1.675	30.900	<b>32.575</b>	0,3%	6,8%	<b>3,3%</b>	94,9%
140 ERREGIMEN OROKORRA (HITZARMEN BEREZIA)	4.925	3.775	<b>8.700</b>	0,9%	0,8%	<b>0,9%</b>	43,4%
161 ERREGIMEN OROKORRA (NEKAZARITZA EZ-AKTIBOIA)	175	-	<b>175</b>	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>	0,0%
163 REGIMEN GENERAL (NEKAZARITZA AKTIBOIA)	7.525	825	<b>8.350</b>	1,4%	0,2%	<b>0,8%</b>	9,9%
521 E.B. AUTONOMOAK	114.050	66.750	<b>180.800</b>	21,2%	14,6%	<b>18,2%</b>	36,9%
531 E.B. AUTONOMOAK (PREST. JARUDERA ETETEA)	50	50	<b>100</b>	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>	50,0%
540 E.B. AUTONOMOAK (HITZARMEN BEREZIA)	2.475	1.725	<b>4.200</b>	0,5%	0,4%	<b>0,4%</b>	41,1%
811 E.B. ITSASOKO LAN (BESTEREN KONTURA 1 TALDEA)	3.150	250	<b>3.400</b>	0,6%	0,1%	<b>0,3%</b>	7,4%
812 E.B. ITSASOKO LAN (BESTEREN KONTURA 2A TALDEA)	500	-	<b>500</b>	0,1%	0,0%	<b>0,1%</b>	0,0%
813 E.B. ITSASOKO LAN (BESTEREN KONTURA 2B TALDEA)	75	-	<b>75</b>	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>	0,0%
814 E.B. ITSASOKO LAN (BESTEREN KONTURA 3 TALDEA)	25	-	<b>25</b>	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>	0,0%
822 E.B. ITSASO LAN (BESTEREN KONTURA ASIM 2A TALDE)	150	-	<b>150</b>	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>	0,0%
823 E.B. ITSASO LAN (BEST KONT ASIMILATUAK 2B TALDEA)	100	-	<b>100</b>	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>	0,0%
825 E.B. ITSASOKO LANGILEAK (AUTONOMOAK)	75	100	<b>175</b>	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>	57,1%
840 E.B. ITSASOKO LANGILEAK (HITZARMEN BEREZIA)	450	25	<b>475</b>	0,1%	0,0%	<b>0,0%</b>	5,3%
<b>Guztira</b>	<b>537.650</b>	<b>457.275</b>	<b>994.925</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>46,0%</b>

Afiliatuak lanpostuaren lurralde historikoaren eta erregimen motaren arabera								
Erregimena	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE
111 ERREGIMEN OROKORRA	132.425	239.550	378.900	<b>750.875</b>	79,7%	72,9%	75,8%	<b>75,5%</b>
112 ERREGIMEN OROKORRA (ARTISTAK)	250	2.125	1.600	<b>3.975</b>	0,2%	0,6%	0,3%	<b>0,4%</b>
121 ERREGIMEN OROKORRA (MERKATARITZAKO ORDEZKA)	-	50	225	<b>275</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
138 ERREGIMEN OROKORRA (ETXEKO LANGILEAK)	3.975	10.575	18.025	<b>32.575</b>	2,4%	3,2%	3,6%	<b>3,3%</b>
140 ERREGIMEN OROKORRA (HITZARMEN BEREZIA)	1.025	2.500	5.175	<b>8.700</b>	0,6%	0,8%	1,0%	<b>0,9%</b>
161 ERREGIMEN OROKORRA (NEKAZARITZA EZ-AKTIBOIA)	-	50	125	<b>175</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
163 REGIMEN GENERAL (NEKAZARITZA AKTIBOIA)	6.175	1.000	1.175	<b>8.350</b>	3,7%	0,3%	0,2%	<b>0,8%</b>
521 E.B. AUTONOMOAK	21.900	69.300	89.600	<b>180.800</b>	13,2%	21,1%	17,9%	<b>18,2%</b>
531 E.B. AUTONOMOAK (PREST. JARUDERA ETETEA)	-	25	75	<b>100</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
540 E.B. AUTONOMOAK (HITZARMEN BEREZIA)	500	2.300	1.400	<b>4.200</b>	0,3%	0,7%	0,3%	<b>0,4%</b>
811 E.B. ITSASOKO LAN (BESTEREN KONTURA 1 TALDEA)	-	575	2.825	<b>3.400</b>	0,0%	0,2%	0,6%	<b>0,3%</b>
812 E.B. ITSASOKO LAN (BESTEREN KONTURA 2A TALDEA)	-	250	250	<b>500</b>	0,0%	0,1%	0,0%	<b>0,1%</b>
813 E.B. ITSASOKO LAN (BESTEREN KONTURA 2B TALDEA)	-	-	75	<b>75</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
814 E.B. ITSASOKO LAN (BESTEREN KONTURA 3 TALDEA)	-	25	-	<b>25</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
822 E.B. ITSASO LAN (BESTEREN KONTURA ASIM 2A TALDE)	-	125	25	<b>150</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
823 E.B. ITSASO LAN (BEST KONT ASIMILATUAK 2B TALDEA)	-	50	50	<b>100</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
825 E.B. ITSASOKO LANGILEAK (AUTONOMOAK)	-	75	100	<b>175</b>	0,0%	0,0%	0,0%	<b>0,0%</b>
840 E.B. ITSASOKO LANGILEAK (HITZARMEN BEREZIA)	-	25	450	<b>475</b>	0,0%	0,0%	0,1%	<b>0,0%</b>
<b>Guztira</b>	<b>166.250</b>	<b>328.600</b>	<b>500.075</b>	<b>994.925</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>

Afiliatuak jaiotze eremuaren arabera								
	Latino-amerika	Afrika	Europa	Asia	Espainiar estatua	Besteak	Zehaztu gabe	Guztira
111 ERREGIMEN OROKORRA	27.575	6.675	15.725	4.075	684.775	1.425	10.625	750.875
112 ERREGIMEN OROKORRA (ARTISTAK)	150	-	75	-	3.650	25	75	3.975
121 ERREGIMEN OROKORRA (MERKATARITZAKO ORDEZKA)	25	-	-	-	250	-	-	275
138 ERREGIMEN OROKORRA (ETXEKO LANGILEAK)	14.150	900	2.775	700	12.725	200	1.125	32.575
140 ERREGIMEN OROKORRA (HITZARMEN BEREZIA)	100	50	-	-	8.475	-	75	8.700
161 ERREGIMEN OROKORRA (NEKAZARITZA EZ-AKTIBOIA)	50	25	25	-	50	-	25	175
163 REGIMEN GENERAL (NEKAZARITZA AKTIBOIA)	725	1.950	925	175	2.350	75	2.150	8.350
521 E.B. AUTONOMOAK	4.975	1.600	4.325	2.425	164.275	250	2.950	180.800
531 E.B. AUTONOMOAK (PREST. JARUDERA ETETEA)	-	-	-	-	100	-	-	100
540 E.B. AUTONOMOAK (HITZARMEN BEREZIA)	25	-	25	-	4.125	25	-	4.200
811 E.B. ITSASOKO LAN (BESTEREN KONTURA 1 TALDEA)	25	25	50	-	3.175	-	125	3.400
812 E.B. ITSASOKO LAN (BESTEREN KONTURA 2A TALDEA)	25	50	25	50	350	-	-	500
813 E.B. ITSASOKO LAN (BESTEREN KONTURA 2B TALDEA)	-	25	25	-	25	-	-	75
814 E.B. ITSASOKO LAN (BESTEREN KONTURA 3 TALDEA)	-	-	-	-	25	-	-	25
822 E.B. ITSASO LAN (BESTEREN KONTURA ASIM 2A TALDE)	-	-	-	-	150	-	-	150
823 E.B. ITSASO LAN (BEST KONT ASIMILATUAK 2B TALDEA)	-	-	-	-	100	-	-	100
825 E.B. ITSASOKO LANGILEAK (AUTONOMOAK)	25	-	-	-	150	-	-	175
840 E.B. ITSASOKO LANGILEAK (HITZARMEN BEREZIA)	-	-	-	-	475	-	-	475
<b>Guztira</b>	<b>47.850</b>	<b>11.300</b>	<b>23.975</b>	<b>7.425</b>	<b>885.225</b>	<b>2.000</b>	<b>17.150</b>	<b>994.925</b>



Afiliatuak jaiotze eremuaren arabera. GIZONAK								
	Latino-amerika	Afrika	Europa	Asia	Espainiar estatua	Besteak	Zehaztu gabe	Guztira
111 ERREGIMEN OROKORRA	13.475	5.000	9.025	3.025	360.525	1.100	7.100	399.250
112 ERREGIMEN OROKORRA (ARTISTAK)	125	-	75	-	2.500	25	50	2.775
121 ERREGIMEN OROKORRA (MERKATARITZAKO ORDEZKA	25	-	-	-	200	-	-	225
138 ERREGIMEN OROKORRA (ETXEKO LANGILEAK)	850	250	50	275	125	50	75	1.675
140 ERREGIMEN OROKORRA (HITZARMEN BEREZIA)	50	25	-	-	4.800	-	50	4.925
161 ERREGIMEN OROKORRA (NEKAZARITZA EZ-AKTIBOA)	50	25	25	-	50	-	25	175
163 REGIMEN GENERAL (NEKAZARITZA AKTIBOA)	675	1.925	825	175	1.925	75	1.925	7.525
521 E.B. AUTONOMOAK	2.775	1.325	2.975	1.450	102.875	250	2.400	114.050
531 E.B. AUTONOMOAK (PREST. JARUDERA ETETEA)	-	-	-	-	50	-	-	50
540 E.B. AUTONOMOAK (HITZARMEN BEREZIA)	25	-	25	-	2.425	-	-	2.475
811 E.B. ITSASOKO LANGILEAK (BESTEREN KONTURA 1 TAL	25	25	50	-	2.925	-	125	3.150
812 E.B. ITSASOKO LANGILEAK (BESTEREN KONTURA 2A TA	25	50	25	50	350	-	-	500
813 E.B. ITSASOKO LANGILEAK (BESTEREN KONTURA 2B TA	-	25	25	-	25	-	-	75
814 E.B. ITSASOKO LANGILEAK (BESTEREN KONTURA 3 TAL	-	-	-	-	25	-	-	25
822 E.B. ITSASOKO LANGILEAK (BESTEREN KONTURA ASIM	-	-	-	-	150	-	-	150
